

KOIUNTURAZ

63. zkia. – 2. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2008KO LEHEN HIRUHILEKOAN	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	15
Eskariaren osagaiak	18
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	22
Lan merkatua.....	29
Prezioak, kostuak eta soldatak	35
Arlo publikoa.....	41
Finantza arloa	44
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	50
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	50
EAErako aurreikuspenak epe laburrean	58

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2008. urteko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak 2007ko bigarren hiruhilekoan hasi zuen moteltzeko joerari jarraipena eman zion eta barne produktu gordinaren (BPG) urte arteko aldakuntza tasa %3,1 areagotu zuen. Beraz, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago hazi zen aurtengo lehen hiru hilabeteetan. Hazkunde erritmo apalagoa barne eskariaren bi osagai nagusiek nozitu duten ahultasunaren ondorioa da. Izan ere, hala kontsumo pribatuak nola inbertsioak azken urteetako gehikuntza maila txikienak jaso zituzten. Hala eta guztiz ere, lan merkatuak bizitasun handiko zantzuak erakutsi zituen berriro, aurreko epealdietako mailara iritsi ez bazen ere, eta lanpostuen kopurua %1,7 areagotu zuen. Aldi berean, langabezia tasa %3,3an kokatu zen, langabezia teknikotzat jotzen den mailan, alegia.

Beraz, hiruhilabeteko hazkundera berriro oso positiboa izan bazen ere, erritmoa nabarmen moteldu da. Bilakaera hori ez dator bat Europako ekonomiek, oro har, erakutsi duten egonkortasunarekin, baina espainiar ekonomiaren ibilbidetik hurbil dago. Zentzu horretan, badaude Euskadin eta Estatu osoan eragina duten berariazko faktoreak, etxebizitzaren eraikuntzaren ziklo hedakorren amaierari lotuta daudenak. Alderdi horiei gehitu behar zaizkie munduko ekonomiaren bilakaera mehatxatzen duten baldintza nagusiak.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Europar Batasuna 27	3,1	2,9	3,4	2,8	2,9	2,5	2,5
- EAE	4,2	3,9	4,1	4,1	3,8	3,6	3,1
- Espainia	3,9	3,8	4,1	4,0	3,8	3,5	2,7
- Alemania	2,9	2,5	3,7	2,6	2,5	1,8	2,6
- Frantzia	2,2	2,2	2,1	1,7	2,4	2,2	2,2
- Italia	1,8	1,5	2,1	1,7	1,6	0,1	0,2
- Erresuma Batua	2,9	3,0	3,0	3,2	3,1	2,8	2,5
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,9	2,2	1,5	1,9	2,8	2,5	2,5
Japonia	2,4	2,1	3,1	1,7	1,8	1,4	1,3
Txina	10,7	11,4	11,1	11,9	11,5	11,2	10,6
India	9,2	8,9	9,1	9,3	8,9	8,4	8,8

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, Eustat eta Eurostat.


Ekonomia esparru nagusientzat argitaratu diren emaitzak ikusita, munduko ekonomia, oro har, zertxobait bakarrik gutxitu zuen aurreko hiruhilabeteetan izandako hazkunde erritmo garrantzitsua. Alde batetik, finantza eta kreditu merkatuetan pairatu diren zurrumbilo larriak ez dira, oraingoz, ekonomia aurreratuetakoko datu makroekonomikoetara igaro. Hain zuzen ere, hala AEBek nola Europar Batasunak 2007ko laugarren hiruhilabetean jaso zuten urte arteko aldakuntza tasa bera (%2,5) lortu zuten, hazkunde erritmoan itxurazko egonkortasuna bizi dutela erakutsiz. Beste aldetik, garapen bidean dauden ekonomiek hamarren gutxi batzuk moteldu zituzten beren emaitza apartak, hainbeste urtez jarraian tamaina handiko gehikuntzak lortu izanak eragindako berotzeak eta janarietarako elikagaien eta petrolioaren prezio altuek baldintzatuta, inflazio tasa handiak dituztelako. Txinan, esate baterako %8tik gorakoak dira.

AEBek urte arteko aldakuntza tasan erakusten duten egonkortasuna (1. taula) ez dator bat ekonomia horretarako analisigile askok eman duten atzeraldiko diagnostikoarekin. Analisisian hautematen den ezadostasuna erabili diren aldakuntza tasa ezberdinetan datza. Izan ere, urte arteko hazkunde tasa erabili beharrean, erakunde horien arreta hiruhilabete arteko tasan dago fokatuta (1. irudia), zikloen aldaketak hobeto aurreratzen dituelako. Hala ere, tasa horrek BPGren joeraz ikuspegi garbi bat edukitzea zailago egiten du, seriearen urterokotasuna areagotzen duelako. Edozein modutan, gaur egunekoa bezalako ziurgabetasun handiko une batean, tasa hori ere aztertu behar da. Tasa horren laguntzaz, garatutako bi eremu nagusiek oso bilakaera ezberdina dutela agerian gelditzen da, urte arteko tasak antzeko emaitzak jaso zituen arren.


BPGren hiruhilabete arteko bilakaera

1. irudia

Amerikako Estatu Batuak



Europar Batasuna



Iturria: Eurostat.

Hain zuzen ere, AEBetan atzeraldia (bi hiruhilekoz jarraian aldakuntza tasa negatiboak jasotzea) iritsi daitekeelako beldurra zentzuzkoa da 1. irudiaren arabera, zeren eta hiruhilabete arteko aldakuntza tasa hamarren bakar batera mugatu baitzen 2007ko laugarren hiruhilekoan eta 2008ko lehen hiruhilabeterako hobekuntza txiki bat bakarrik hauteman zen. Atzeraldian egon ala ez, begi bistakoa da AEBetako hazkunde erritmoa ia hutsala dela. Halaber, ekonomia horrek lortu duen urte arteko aldakuntza tasaren ia erdia kanpo arloaren defizitak lortu duen zuzenketaren ondorioa da, dolarraren balio galerarengatik, barne eskariak ahultasuneko zantzu garbiak erakusten dituen bitartean.

Oso bestelakoa da Europar Batasunerako irudia. Eremu horren hiruhilabete arteko hazkunde tasa azken bi urtean %0,5aren eta %1,0aren artean kokatu da etengabe. Oro har, europar ekonomiak erakusten duen sendotasuna Alemaniaren emaitzetan ikusten da argien. Uste zenaren kontra, Alemaniak aurreko hiruhilabeteetako motelaldia bertan behera utzi du eta urte arteko hazkunde garrantzitsua (%2,6) jaso zuen. Frantziaren egonkortasuna ere azpimarratzekoa da. Txanponaren ifrentzuan, Erresuma Batuak hiru hamarren gutxitu zuen hazkundera eta Espainiak %2,7ra mugatu zuen aldakuntza tasa, 2007ko laugarren hiruhilekoan lortutakoa baino zortzi hamarren gutxiago eta Europako batez bestea baino hiru hamarren gehiago bakarrik, bi lurraldeen arteko hazkunde tartea nabarmen murriztu delarik.


Testuinguru horretan, EAEko ekonomiak hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen berriro 2008ko lehen hiruhilekoan, %3,1ekoa, baina aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino puntu erdi bat txikiagoa delarik. Urte arteko tasaren beherakada guztia barne eskarian gauzatu da, bere gehikuntza erritmoa sei hamarrenetan apaldu baitzen. Aitzitik, kanpo saldoak ia ez zuen inolako aldaketarik izan BPGren hazkundeari eginiko ekarpen negatiboan (bi hamarren). Barne eskariaren bi osagai nagusiek, hots, kontsumo pribatuak eta kapitaleko eraketa gordinak, argi eta garbi gutxitu zuten hazkunde tasa. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuak zortzi hamarrenetan murriztu zuen aurreko hiruhilabeteako balioa, enplegua gutxiago hazi zelako, kontsumitzaileen igurikimenak okertu zirelako, inflazioa altua delako eta interes tasak ere handiak direlako. Beste aldetik, inbertsioak ia puntu oso bat gutxitu zuen bere gehikuntza, etxebizitzaren eraikuntzak dituen zailtasunen ondorioz eta ekoizpenerako inbertsioen erabakietan zabaldu den zuhertasunaren ondorioz.

Eskaintzaren ikuspegitik, hala industriak nola eraikuntzak indarra galdu zuten. Hala ere, lehen hiruhilabeteako moteltzea 2007ko azken laurdenekoa baino askoz ere txikiagoa izan zen. Zerbitzuek, berriz, 2007ko lehen hiru hiruhilekoetako balioa berreskuratu zuten, urte amaiera ezohikoaren ondoren. Izan ere, azken laurdenean herri administrazioaren jardunari lotutako zerbitzuek, arrazoi iragankorrak direla medio, sektorearen balio erantsia gorarazi zuten. Hala eta guztiz ere, merkaturatzen diren zerbitzuek moteltzeko joera garbia izan zuten, familien gastu ahalmena gutxitu zelako eta industriak ahultasuna erakutsi zuelako.


BPGren hiruhilabeteko hazkunde eta ekarpenak

2. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiak 2008. urtearen hasieran izan zuen bultzada txikiagoak enplegu berriak sortzeko ahalmena nabarmen murriztu zuen, aurreko epealdietan lortutakoarekin alderatzen bada. Hala ere, sortu ziren lanpostuak nahiko izan ziren langabezia tasak kalterik nozitu ez zezan. Hain zuzen ere, lanpostuen kopurua %1,7 areagotu zen aurreko urteko epe beraren aldean, eta langabezia tasa bi hamarren bakarrik igo zen (%3,3), enplegu beteko balioei eusten dielarik. Aurreko emaitzei esker, ekoizkortasun irabaziak 1,5 ehuneko puntuetatik hurbil jarraitu zuen.

EAE-KO EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	4,2	3,9	4,1	4,1	3,8	3,6	3,1
Enplegua	2,3	2,4	2,6	2,4	2,3	2,3	1,7
Ekoizkortasun irabaziak	1,9	1,5	1,5	1,7	1,4	1,3	1,4
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,4	3,4	3,1	3,1	3,3
Kontsumoko prezioen indizea	3,4	2,8	2,4	2,5	2,5	4,0	4,3

Iturria: Eustat eta INE.

Hiruhilabetearen ezaugarrietako bat kontsumoko ondasunen prezioek nozitu zuten garestitzearen jarraipena izan zen. Hain zuzen ere, KPIren urte arteko tasa %4,3ra igo zen, 1995etik inoizko baliorik gorena baita. Gorakada horren zati handi bat lehengaiak nazioarteko merkatuetan izan duten bilakaerari lotuta dago, beraien salneurriak izugarri hazi direlako. Euroak dolarraren aldean duen truke tasak igoera horiek leundu baditu ere, bai petrolioak bai janaritarako lehengaiak %40aren inguruan garestitu dira azken hamabi hilabeteetan, europar diruan neurtuta. Azken hauen garestitzea dagoeneko moteldu bada ere (3. irudia), eragin handia izan du oinarritzko elikagai batzuetan, kontsumitzaileen igurikimenak ere okerrarazi dituelarik.

Zenbait lehengairen bilakaera

3. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Datozen hiruhilabetei begira, ziurgabetasuna agerian gelditzen da nazioarteko erakundeen aurreikuspen ezberdinak ikusita. Izan ere, guztiek azken urteetako baina joera ezkorragoa iragartzen badute ere, guztiz kontrajarriak diren iritziak dituzte motelaldiaren amaieraz. Batzuen ustez susperraldia 2009. urtean bertan gauzatuko da. Beste batzuek, ordea, data hori baino beranduago kokatzen dute ekonomia aurreratuek sendotasuna berreskuratuko duten garaia.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspen berriek motelaldia 2009. urte osoan zehar luzatuko dela iradokitzen dute. Hala ere, datozen epealdietako mugimenduak leunagoak izango dira, lehen hiruhilabetearen gertatu den erritmo galerarekin alderatuta. Eskariaren ikuspegitik, 2007ko udatik hedatu den mesfidantzako testuinguruak

kontsumo pribatua kaltetuko du oraindik eta familien gastua errenta erabilgarriaren irabazietara mugatuko du. Aldagai hori batez ere enpleguaren igoerak eta soldata errealean bilakaerak baldintzatzen dute. Inbertsioak ere bere bizitasuna galgatu du 2008. urtean, baina ekoizteko ahalmenaren erabilera maila altuak pentsarazten du ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordinak nolabaiteko sendotasun iraunkorra erakutsiko duela. Eraikuntzan eginiko inbertsioak etxebizitzaren alorreko arazoak nozitzen jarraituko du, baina azpiegitura berriak martxan jartzeak neurri batean konpentsatuko du beste atalaren ahultasuna. Arlo publikoak zikloaren aurkako portaera erakutsiko du eta nabarmen areagotuko du bere kontsumoa, EAEko ekonomiaren batez besteko hazkunde tasa gaituz.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2008			2009
		II	III	IV	
BPG erreala	2,7	2,7	2,5	2,4	2,3
BPGren deflatoea	3,4	3,5	3,4	3,3	3,2
Enplegua	1,4	1,4	1,4	1,2	1,1
Langabezia tasa	3,6	3,6	3,8	3,8	3,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpenaren ikuspegitik, industria datozen hiruhilekoetan suspertuko dela aurreikusten da, arlo horretako enpresariak iritziak iradokitzen dutenez. Hala ere, industriak ez du lortuko ekonomia osoaren batez besteko hazkunde tasara iristea. Eraikuntzak ere ezinezkoa izango du azken urteetako erritmoari eustea eta aurreikuspenaren aldi osoan zehar moteltzeko joera etengabea erakutsiko du. Beraz, zerbitzuak izango dira 2008ko hazkundearen oinarria, oraindik %3tik gorako hazkunde erritmoa lortuko dutelako, neurri handi batean merkaturatzen ez diren zerbitzuentzat espero den bilakaera nabarmenari esker.

Eszenategi horretan, prezioen igoerak biziak izango direla eta BPGren deflatoeak %3aren gainetik jarraituko duela espero da. Era berean, enplegu garbia sortzeko ahalmena mugatuagoa izango da eta lanpostuen kopurua %1,4 igoko da aurten, 2009. urtean %1,1era jaisteko. Biztanleriaren presioa txikia izateak lagunduko du EAEko ekonomiaren moteltzeak langabezia tasaren gorakada garrantzitsu bat eragiten sahisten, aurreikusten den epe osoan hamarren gutxi batzuk bakarrik igoko baita.

EAE-KO EKONOMIA 2008KO LEHEN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

Munduko ekonomiaren bilakaeran agerian geratu dira finantza krisiaren eragina, oraindik bere gordinean islatu ez bada ere, eta higiezinaren arloarena. Halaber, hasieran etxebizitzaren merkatura mugatuko ziren tentsioek ondorio garrantzitsuak izan zituzten ekonomiaren jardueran ere, bereziki berankortasuneko tasak igo zirelako eta kreditu bat lortzeko baldintzak gogortu zirelako. Aurreko guztiari gehitu behar zaio energiaren eta beste lehengai batzuen prezioek azkar igotzen jarraitu zutela eta egonkortzeko inolako zantzurik erakusten ez dutela, inflazioaren gorakada nabarmena eraginez.


Urte hasierako eszenategiak ekonomiarentzat emaitza txarrak iragartzen bazituen ere, herrialde aurreratuek ondo egin zieten aurre finantza merkatuaren eta higiezinaren arloaren egoeratik eratortzen diren zurrunbiloei, eta ezustean egonkortasuneko joera erakutsi zuten. Izan ere, aurreikuspen guztien kontra, AEBek aurreko hiruhilabetearena bezalako urte arteko aldakuntza tasa lortu zuten, kontsumoaren sendotasunean oinarrituta. Europako Batasunak ere hazkunde erritmoari eutsi zion, Alemaniako sendotasunak lagunduta. Japonia ere ez zen joera orokor horretatik gehiegi aldentu eta antzeko ibilbidea erakutsi zuen, bere hazkunde erritmoa 2007ko azken laurdenean jasotako baliotik hamarren bakar bat beherago geratu zelako. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txina aitzindaria izan zen berriro munduko hazkundean eta %10,6ko tasa sendoa lortu zuen, 2007ko azken hilabeteetako baino sei hamarren apalagoa baita. Asiako erraldoiak prezioen igoera garrantzitsua eta AEBetara bideratutako esportazioen beherakada nozitu zituen. Hala eta guztiz ere, ez dirudi munduko ekonomiaren moteltzeak Txinako hazkundea gehiago kaltetuko duenik.

Zehazkiago adierazita, estatubatuar ekonomiak %2,5eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen 2008ko lehen hiruhilekoan, iazko azken hiruhilekoan lortu zuen tasa bera. Esportazioen eta kontsumo publikoaren sendotasunak kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren ahultasuna konpentsatu zuten. Izan ere, familien kontsumoa 2002ko amaieratik aurrerako erritmoa apalenean hazi zen, enpleguaren galerak eta gasolinaren garestitzeak kaltetuta. Inbertsioak behera egin zuen berriro, etxebizitzaren eginiko inbertsioaren hurrengo jaitsieraz gain gainontzeko inbertsioa ere murriztu zelako. Hala eta guztiz ere, herrialdearen barne eskariaren moteltzea kanpo eskariaren ekarpen garrantzitsuak konpentsatu zuen, ehuneko puntua gainditu baitzuen, dolarren ahultasunak eta gainontzeko eremu ekonomikoen hazkundeak bultzatuta, esportazioak areagotu zituztelako eta atzeritik inportatutakoa murrizten lagundu zutelako.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Langabezia tasa oso gutxi hazi zen 2007ko amaieran jasotako mailetatik, nahiz eta estatubatuar ekonomian 232.000 lanpostu galdu ziren urteko lehen hiru hilabeteetan. Hala ere, igoera txiki hori nahiko izan zen 2005eko amaieratik langabezia tasa inoizko mailarik gorenean kokatzeko. Azkenik, inflazioa hamarren bat areagotu zen eta %4,1ean kokatu, lehengaien garestitzearen ondorioz.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
BPG erreala							
AEB	2,9	2,2	1,5	1,9	2,8	2,5	2,5
Japonia	2,4	2,1	3,2	1,8	1,9	1,4	1,1
EB - 27	3,1	2,9	3,4	2,8	2,9	2,5	2,5
- Alemania	2,9	2,5	3,7	2,6	2,5	1,8	2,6
- Frantzia	2,2	2,2	2,1	1,7	2,4	2,2	2,2
- Erresuma Batua	2,9	3,0	3,0	3,2	3,1	2,8	2,5
Inflazioa							
AEB	3,2	2,9	2,4	2,7	2,4	4,0	4,1
Japonia	0,2	0,1	-0,1	-0,1	-0,1	0,5	1,0
EB - 27	2,3	2,4	2,2	2,2	2,1	3,0	3,5
- Alemania	1,8	2,3	1,9	2,0	2,2	3,0	3,1
- Frantzia	1,9	1,6	1,3	1,3	1,4	2,5	3,3
- Erresuma Batua	2,3	2,3	2,9	2,6	1,8	2,1	2,4
Langabezia tasa							
AEB	4,6	4,6	4,5	4,5	4,7	4,8	4,9
Japonia	4,1	3,9	4,0	3,8	3,8	3,8	3,9
EB - 27	8,2	7,1	7,4	7,2	7,0	6,9	6,8
- Alemania	9,8	8,4	8,7	8,5	8,3	8,0	7,5
- Frantzia	9,2	8,3	8,7	8,4	8,2	8,0	7,9
- Erresuma Batua	5,3	5,3	5,5	5,3	5,2	5,0	---

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Japoniako ekonomiak hazkunde tasa gutxitzeko joerari eutsi zion eta %1,3 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Esportazioen sendotasunak, bereziki Europara eta Asiara bidalitakoak, AEBetako eskariaren apaltzea konpentsatu zuten, ekonomiaren hazkundera bultzatuz. Horrekin batera, kontsumo pribatuak joera sendoa eta iraunkorra erakutsi zuen AEBetako krisiaren aurrean. Duela urtebete bat Japoniako hazkunderaren beste

oinarria inbertsioa bazen ere, lehen hiruhilekoan berriro jaitsi zen, lehengaien eta energiaren garestitzeak enpresen mozkinetan izan duten eragin kaltegarriaren ondorioz. Inflazio tasa azken hamarkadaren maila altuenera igo da eta langabezia tasa egonkor mantendu zen %4,0ra iristen ez den tasa batean.

Txinak nabarmen gutxitu zuen bere hazkunde tasa, baina oraindik %10,6 hazi zen lehen hiruhilekoan. Hedapenaren bultzagileak berriro izan ziren inbertsioa, batez ere hiriko aktibo finkoetan, eta esportazioen bilakaera. Hala ere, azken hauek bizitasuna galdu zuten lehengaien garestitzearengatik eta AEBetako moteltzearen ondorioz, Txinako bezero nagusietakoa baita. Kontsumo pribatuak garrantzia irabazten ari da eta oso bizkor hazi zen, dagoeneko 2.000 dolarretatik gora dagoen biztanleko BPG batek bultzatuta. Horren ondorioz, barne eskariak emeki-emeki kanpo eskariaren papera bereganatzen ari da BPGren hazkundeari eginiko ekarpenetan. Gaur egun, aldagai okerreana prezioen bilakaera da, azken hamabi urteko tasarik gorena jaso zuelako, otsailean %8,7ra iritsita. Hiruhilabetearen batez bestean kontsumoko prezioen indizea %8,0an kokatu zen, barne eskaria asetzeko petrolioaren eta lehengaien kontsumo biziak gain, arroza eta zerealak ere asko garestitu zirelako. Gogoratu behar da urtebete bakar bat lehenago oso bestelako egoeran zegoela inflazioa, %3,0 baino ez baitzen hazi, arazoaren larritasuna agerian utziz.

Europak modu arrakastatsu batean egin die aurre finantza zurrunbiloei. Garapen bidean dauden herrialdeen bizitasunak europar esportazioak bultzatzen dituzte eta lan merkatuaren sendotasunak barneko gastua sustatu du, munduko motelaldia oraingoz saihestuz. Alemaniako ekonomiak erakutsi duen bizitasunak eta Frantziako egonkortasunak adierazten dute ekonomiaren krisia mugatua dela Atlantikoaren alde honetan.

Ekonomiaren hazkundeak izan duen bultzadaren eragile nagusia berriro barne eskaria izan bada ere, aipamen berezia merezi du kanpo saldoak egin duen ekarpena, hazkundeari ia sei hamarren ekarri baitzizkion, hots, 2002. urteko erdialdetik inoizko ekarpen handiena. Barne eskariaren gehikuntza tasa txikiagoa osagai guztien apaltze orokorraren ondorioa izan zen. Hala ere, joera hori konpentsatuta geratu zen inportazioen moteltzearekin eta esportazioen gorakadarekin. Aurreko guztiaren ondorioz, eremu honek 2007ko amaieran lortutako hazkunde tasa bera, %2,5, izan zuen berriro.

Datu okerreana prezioen bilakaerak eskaini zuen ekonomia eremu honetan ere. Martxoan, KPI indizea %3,5 hazi zen urte arteko aldakuntza tasan, 1999. urtetik jasotako maila gorena baita. Gorakada handi horren arrazoa petrolioaren eta elikagaien etengabeko garestitzean datza, nahiz eta euroak dolarraren aldean lortu duen sendotasunak eragina neurri batean leundu duen. Langabezia tasak berriro islatu zuen Europako ekonomiaren egoera ona eta beste

hamarren bat jaitsi zen, %6,8an kokatu arte, seriea 2000. urtean sortu zenetik jaso duen emaitzarik apalena delarik.

Alemaniak Europako bultzagile nagusiaren papera berreskuratu zuen. 2008ko lehen hiruhilekoan eta Europako Batzordeak gehienez %1,9 haziko zela aurreikusi arren, Alemania %2,6 hazi zen, aurreko hiruhilabetean baino zortzi hamarren gehiago. Hazkunde tasaren bizkortzea barne eskariaren eta kanpo saldoaren bilakaera hobean oinarritu zen. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua %0,6 hazi zen, eta berez gehikuntza txikia izan arren, gogoratu behar da aurreko hiruhilekoetan hazkundea ia hutsala eta baita negatiboa ere kasu batzutan izan zela. Barne eskariaren beste bultzagilea inbertsioa izan zen, kontsumo publikoaren moteltasuna tarte zabalez konpentsatu baitzuen. Barne eskariaren egonkortasunari kanpo arloaren ekarpen handiagoa gehitu behar zaio, Alemaniako esportazioek erakutsi zuten sendotasunari esker. Lan merkatuak lanpostuak sortzen jarraitu zuen eta langabezia tasa %7,5era jaitsi zedila lortu zuen, 2001. urte hasierako maila berreskuratuz. Prezioen bilakaera ez zen horren aldekoa izan eta urte arteko tasa %3,1ean kokatu zen berriro.

Frantziak ere hazkunde erritmoari eutsi zion azken hiruhilekoan, baina eskarien arteko banaketan hainbat aldaketa gertatu ziren. Barne eskariaren hazkundea moteldu zen, kontsumoa oro har gutxiago hazi zelako, bereziki kontsumo pribatuaren ahultzearen ondorioz eta, neurri txikiagoan, kontsumo publikoaren geldotasunarengatik. Beste aldetik, inbertsioaren egonkortasunak barne eskariaren beherakada leundu zuen. Hala eta guztiz ere, eta barne eskariak BPGren hazkundeari zazpi hamarren gutxiago ekarri bazizkion ere, kanpo eskariak jaitsiera hori berdindu zuen, esportazioen hazkunde tasa inportazioena baino gehiago hazi zirelako. Prezioek eta lan merkatuak alemaniar ekonomiak egindako bide beretik mugitu ziren. Izan ere, prezioen indizea %3,3ra igo zen, aurreko hiruhilabeteko emaitza zortzi hamarrenetan gaingiduz eta datuen seriea 1997. urtean hasi zenetik inoizko mailarik gorena jasoz. Lan merkatuak, berriaz, langabezia tasa emeki-emeki baina etengabe gutxitzeko joerari eutsi zion, %7,9ra jaitsaraziz.

Banku eta finantza arloak Erresuma Batuko ekoizpen egituraren duen garrantziaren ondorioz, sektorearen krisiak eragin handiagoa izan zuen ekonomia horretan Europako Batzordeko gainontzeko herrialde nagusietan baino. Hain zuzen ere, uharteetako BPG %2,5 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago eta azken bi urteko emaitzarik txikiena. Kontsumoak, bereziki kontsumo pribatuak, barne eskaria bultzatu zuen, inbertsioaren narriadura garrantzitsua alde handiz konpentsatuz. Kanpo arloak berriro kendu zizkion zenbait hamarren hazkundeari, baina azken urteetako emaitzarik onena erakutsi zuen, esportazioak suspertu zirelako eta inportazioek erritmoa galgatu zutelako. Inflazioak gora egin zuen Erresuma Batuan ere, baina oraindik maila apaletan kokatu zen. Langabezia tasa urtarrilean eta otsailean egonkor mantendu zen %5,0an.

Hamarkada luze batean hazkunde tasa handiak lortu eta gero, Espainiako ekonomiak modu garrantzitsu batean nabaritu zituen ekonomia eta finantza egoeratik eratorri den ziurgabetasuna, higiezin merkatuaren geldialdia eta inflazioaren bizkortzea. Aurreko guztiaren ondorioz, BPGren hazkundea %2,7ra mugatu zen, 2007ko azken hiruhilekoan lortutakoa baino zortzi hamarren gutxiago direlarik. Apaltzeko joera horren atzean barne eskariaren bat-bateko moteltzea dago, kontsumo pribatuaren ahultasunaren, eraikuntzan egindako inbertsioaren eta lan merkatuak bizitasuna galdu izanaren ondorioz. Esportazioek hamarren bat gutxitu zuten bere hazkunde tasa eta %5,0ean kokatu. Hazkunde tasa bera jaso zuten inportazioek ere, barne eskaria moteldu zelako. Bilakaera horien ondorioz, Espainiako ekonomiaren hazkundea oraindik sendoa izan zen, baina ez zen iritsi aurreko hiruhilabeteetako mailara. Nolabaiteko oreka lortu zen barne eta kanpo eskarien ekarpenen artean, azken horrek hiru hamarrenetara mugatu baitzuen bere kenketa.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	4,0	3,6	4,1	3,8	3,6	3,1	2,5
- Familien gastua	3,7	3,1	3,5	3,4	3,1	2,7	1,8
- Administrazioaren gastua	4,8	5,1	6,1	5,0	5,1	4,4	4,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,8	5,9	6,3	6,7	5,8	4,8	3,2
- Ekipamendurako ondasunak	10,4	11,6	13,1	13,1	11,6	8,6	6,3
- Eraikuntza	6,0	4,0	4,9	4,6	3,8	2,9	1,3
- Bestelako ekoizkinak	4,6	4,2	1,9	4,7	4,3	6,1	5,2
- Izakinen aldakuntza (*)	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1
Nazio eskaria (*)	5,1	4,6	5,1	4,9	4,5	3,9	3,0
Esportazioak	5,1	5,3	3,6	4,7	7,7	5,1	5,0
Inportazioak	8,3	6,6	6,0	6,7	8,4	5,4	5,0
BPG (m.p.)	3,9	3,8	4,1	4,0	3,8	3,5	2,7
Nekazaritza eta arrantza	2,4	3,8	6,8	2,8	2,8	2,9	3,0
Energia	1,4	1,0	-3,6	3,4	0,0	4,5	4,0
Industria	2,9	3,1	5,0	3,6	2,4	1,4	-0,3
Eraikuntza	5,0	3,8	4,5	4,2	3,8	2,8	1,4
Zerbitzuak	4,1	4,2	4,2	4,2	4,3	4,2	3,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,5	3,4	3,2	3,5	4,1	2,9	2,0
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,5	2,8	2,4	2,4	2,4	4,0	4,4
- Enplegua (**)	3,2	3,0	3,3	3,1	3,0	2,5	1,7

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena (**). Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Eskaintzaren ikuspegitik, motelaldia gehien nozitu zuten arloak industria eta eraikuntza izan ziren, bereziki etxebizitzaren eraikuntza. Hain zuzen ere, industriak apaltzeko bere joera areagotu zuen eta tasa negatiboetara igaro zen. Eraikuntzak, berriz, bere bizitasuna nabarmen moteldu zuen, higiezinaren geldotasunarengatik, eta erdira murriztu zuen aldakuntza tasa. Kontuan hartzen bada higiezinaren eta finantza merkatuen bilakaera, ziurtzat jotzen da joera hori datozen hiruhilabeteetara ere luzatuko dela. Portaera onena zerbitzuek erakutsi zuten eta zertxobait gutxiago hazi baziren ere, BPGren hazkundearen gainetik mantendu ziren.

Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren sorrera, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %1,7ra murriztu zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteko emaitza baino zortzi hamarren gutxiago delarik. Tasa horrek adierazten du lanaldi osoko 322.000 lanpostu sortu zirela urtebeteko epean. Enplegua gutxiago hazi izanaren erantzule nagusia eraikuntza izan zen, bere langileen kopurua %1,1 gutxitu zuelako. Datu hori harrigarriagoa da kontuan hartzen bada urtebete bat lehenago sektorean sortutako lanpostuak %7,4 areagotu zirela. Aitzitik, industrian eta energian %1,7 gehitu zen langileen kopurua, bederatzi hilabeteko murrizketari amaiera emanez. Zerbitzuetako adarrek erritmoa moteldu zuten, baina lanpostu asko sortu zituzten oraindik. Prezioen atalean, KPI indizea %4,4ra igo zen berriro, aurreko hiruhilabeteko emaitza lau hamarrenetan gaindituz. Energiaren eta petrolioaren etengabeko garestitzeak indize orokorraren igoera berriak eragin zituen eta martxoan %4,5ean kokatu, 1995eko abendutik inoizko tasarik gorena baita.

Administrazio publikoek 3.276 milioi euroko superabita lortu zuten martxoan arte, kontabilitate nazionalako terminoetan, hau da, barne produktu gordinaren %0,29, aurreko urteko epe berean 6.747 milioi euroko superabita lortu zuten bitartean. Beraz, diru kopurua oso garrantzitsua izan zen berriro, baina aurreko urtekoa baino txikiagoa. Emaitzaren arrazoiak artean, aipatu behar da higiezinaren arloko moteltzeak eta petrolio gordinaren prezioak ekonomian eta, bereziki, BEZ zergan izan duten eragina.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek 2008ko lehen hiruhilabeterako argitaratu dituen hiruhilabetekako kontabilitatearen datuek adierazten dute zenbait hilabete lehenago hasi zen moteltzeko joerak jarraitu duela. Estimazio horien arabera, EAEko barne produktu gordinaren urte arteko hazkunde tasa %3,1 hazi zen aurtengo lehen hiru hilabeteetan, urritik abendura bitartean baino bost hamarren gutxiago. Hiruhilabete arteko tasetan neurtuta, aldakuntza tasa %1,0an kokatu da, aurreko hiruhilabeteko datua bederatzi hamarrenetan gaindituz. Ekonomiaren hazkunde txikiagoa barne eskariaren ondorioa da, ekarpen apalagoa egin duelako, baina kanpo arloak bere

horretan utzi du egin zuen ekarpen negatiboa. Gaurkoa bezalako ziurgabetasun handiko testuinguru batean, ekonomia eragileen konfiantza galerak barne eskariaren osagai nagusien, hots, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren, moteltzea eragin du. Kontsumo publikoak ez du bat egin moteltzeko joera orokorrarekin eta aurreko hiruhilabeteetan baino hazkunde tasa biziagoa jaso zuen.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Barneko azken kontsumoa	3,9	3,6	3,7	3,7	3,4	3,3	2,9
- Familien gastua kontsumoan	4,2	3,5	3,9	3,7	3,3	3,2	2,4
- Herri admin. gastua kontsumoan	2,8	3,7	3,0	3,7	4,2	4,2	4,9
Kapital eraketa gordina	6,0	5,9	6,6	6,6	5,8	4,5	3,6
Barne eskaria	4,5	4,2	4,5	4,5	4,1	3,7	3,1
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	-0,5	-0,7	-0,7	-0,5	-0,2	-0,2
Esportazioak	7,5	7,1	6,5	9,0	6,5	6,6	8,3
Inportazioak	7,7	7,3	7,0	9,2	6,7	6,4	8,1
BPG (m.p.)	4,2	3,9	4,1	4,1	3,8	3,6	3,1
Lehen arloa	-9,8	8,0	8,1	11,5	2,0	10,8	4,6
Industria	4,9	3,8	4,9	4,6	3,7	2,3	1,9
Eraikuntza	5,1	4,0	4,5	4,4	4,3	2,9	2,4
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2	3,6
Balio erantsi gordina	4,1	3,9	4,1	4,1	3,7	3,7	3,0
Ekoiizkimen zerga garbiak	5,3	4,3	4,0	4,2	4,8	4,4	3,6

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Eskaintzari dagokionez, balio erantsiak 2008ko lehen hiruhilekoan izan zuen erritmo galera jarduera adar guztietan, salbuespenik gabe, gauzatu zen. Hala ere, intentsitatea ez zen berdina batzuetan eta besteetan. Azpimarratzekoa da eraikuntzak eta industriak azken lau hiruhilekoetan izan duten moteltzeko joera bizia. Zerbitzuek, ordea, egonkortasuneko irudia ematen dute, salbuespena 2007ko amaiera izan zelarik.

Ekoizpen jarduera


Analisia eskaintzaren aldetik egiten bada, adierazi behar den lehenengo ideia da balio erantsiaren moteltzea EAEko ekonomiaren ekoizpen adar guztietara hedatu zela, inolako salbuespenik gabe, zeren eta 2008ko lehen hiru hilabeteetan, sektore guztien urte arteko aldakuntza tasa aurreko hiruhilabetekoa baino txikiagoa izan baitzen. Balio erantsia %3,0 areagotu zen EAEn urte arteko aldakuntza tasan. Beraz, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gutxiago hazi zen oro har. Bilakaera okerrago horretan industriak eta eraikuntzak erakutsi zuten bultzada motelagoak eragin handia izan zuen.

Industriak laugarren hiruhilekoz jarraian gutxitu du bere hazkunde erritmoa eta 2008ko lehen hiru hilabeteetan %1,9ko urte arteko hazkunde tasa jaso du, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Merkataritza bazkideetako ekonomiek izan duten apaltzea eta barne eskariaren moteltzea dira sektorearen sendotasuna ahuldu duten arrazoietako batzuk. Hala eta guztiz ere, industriaren adierazle nagusiek seinale kontrajarriak eskaintzen dituzte hazkundeari buruz. Zehazkiago adierazita, ekoizteko ahalmenaren erabilerak nolabaiteko hobekuntza jaso du hilabete horietan, baina hala industria giroaren indizeak nola industria produkzioaren indizeak bilakaera okerragoa adierazi dute.


Industria produkzioaren indizeak garbi adierazten du industria arloak 2008ko lehen hiruhilekoan bizi zuen unea. Ekonomia helburuaren arabera sailkatzen diren taldeek, energiarena izan ezik, aurreko epealdietan baino hazkunde nabarmen txikiagoak jaso zituzten. Kontsumorako ondasunen ekoizpenak, hala iraunkorrenak nola iragankorrenak, eta ekipamendurako ondasunen produkzioak hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten. Beste aldetik, bitarteko ondasunen adarrek eta energiak bilakaera hobea erakutsi zuten eta indize orokorra lagundu zuten hazkunde positiboa baina txikia lortzen lehen hiruhilekoan. Analisia ekoizpen adar nagusietara eramaten bada, geldotasun orokorretik aldentzen diren adar bakarrak petrolioaren fintzea eta material elektrikoa dira. Txanponaren ifrentzuan zurgintza eta bestelako manufakturak daude, 2008ko lehen hiruhilekoan beherakada garrantzitsua jaso duten arloak baitira.

Eraikuntzaren arloak %2,4ko hazkunde tasa jaso zuen eta bost hamarren gutxiago hazi zen urte arteko tasan 2008ko lehen hiruhilekoan. Higiezinaren arloak azken hamabi hilabeteetan erakutsi duen irudiak baieztatzen du etxebizitzak azken urteetan bizi duen goranzko zikloa amaitu dela.


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eurostat.

Sustapen Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute 2008ko lehen bi hilabeteetan lizitazio ofizialaren balioa %26,2 igo zela. Urte arteko hazkunde hori ingeniarietza zibilaren gorakada garrantzitsuen ondorioa da, eraikinen ataleko zenbatekoek berriro ahultasuneko zantzuak erakusten zuten bitartean. Etxebizitzaren eraikuntzak bizi duen atzeraldia beste adierazle batzuetan ere igartzen da, hala nola eskainitako etxebizitzaren kopuruan, higiezin salneurrien beherakadan eta egindako salerosketa kopuruaren jaitsieran. Eraikuntzaren jarduerak jasan duen apaltzeak bere isla izan du lanpostu berriak sortzeko ahalmenean, murritzuta geratu baita. Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arabera, 2008ko lehen hiruhilekoan eraikuntza arloko enplegua %1,1 jaitsi zen aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Industria							
Balio erantsi gordina	4,9	3,8	4,9	4,6	3,7	2,3	1,9
Industria produkzioaren indizea (*)	5,1	3,9	5,3	4,9	3,5	1,9	0,2
Industria giroaren indizea	-3,9	3,1	2,0	7,3	4,4	1,5	-2,6
Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)	80,6	82,1	80,8	81,2	84,5	82,0	84,0
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	-0,6	0,7	0,3	0,7	1,0	0,9	0,6
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	5,1	4,0	4,5	4,4	4,3	2,9	2,4
Eskainitako etxebizitzak	12,4	14,2	8,8	10,9	14,2	22,2	---
Obra berriko baimenak	-16,9	-26,8	-26,3	-16,0	-37,8	-27,2	-45,6
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,7	2,2	3,4	2,7	2,0	0,7	0,3
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2	3,6
Hegazkinen bidezko trafikoa	4,4	11,1	9,5	12,0	13,2	9,7	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	11,3	3,0	6,6	6,1	0,0	-0,6	8,6
Hoteletako okupazioa	47,9	46,6	36,2	48,4	58,4	43,3	38,5
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,3	3,3	3,4	3,5	3,3	3,2	2,3
Enplegua (barne merkataritza indizea)	1,2	2,1	1,3	2,0	2,4	2,7	---

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Zerbitzuek sortu zuten balio erantsi gordina %3,6 hazi zen urte arteko tasan 2008ko lehen hiruhilekoan. Beraz, aurreko hiruhilabeteko datuaren aldean sei hamarrenetako apalaldia izan du. Hala ere, tasa hori bat dator 2006ko zati handian eta 2007an jasotako balioekin, hazkunde egonkorreko irudi bat ematen. Alde batetik, merkaturatzen diren zerbitzuak %3,0 hazi ziren, azken lau urteko emaitzarik apalena baita. Beste aldetik, merkatuetatik kanpoko zerbitzuek, aurreko hiruhilabetean bezala, bizitasun handia erakutsi zuten, urte arteko tasa %6,5ean estimatu baita.

Zerbitzuen adarretarako eskuragarri dauden koiunturako adierazleak aztertzen direnean, norabide kontrajarriko zantzuak aurkitzen dira 2008ko lehen hiru hilabeteetarako datuetan. Hain zuzen ere, turismoko inkestatik eratortzen diren adierazleek gorakada nabarmena erakusten dute bai EAE bisitatu zuten turisten kopuruan bai hoteletan igarotako gaudiaren kopuruan ere. Ostatuetaiko betetze maila %38,5era iritsi zen, aurreko urteko epe berean jasotakoa baino bi puntu gorago dagoelarik. Aste Santua 2008ko lehen hiruhilekoan ospatu izanak azaltzen du jarduera adar horren gorakada.

Merkataritzari dagokionez, Eustatek egiten duen barne merkataritzako indizearen emaitzek moteltzeko joera garbia izan zuten salmentetan, bai txikizkako merkataritzan bai handizkakoan, eta baita langileen kopuruan ere. Azkenik, enplegua estimatzen duten estatistika iturriek zerbitzuen motelaldi bera hauteman dute. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, goranzko bilakaera adierazten duten jarduerak ikerketa eta garapena, ostalaritza, aireko garraioa eta garraioari lotutako jarduerak izan dira. Aitzitik, enplegu gehien galdu zuten adarrak higiezinaren jarduerak, aseguruak eta komunikazioak izan ziren.

Eskariaren osagaiak

EAEko ekonomiaren barne produktu gordinaren hazkunde tasak pairatu duen moteltzea barne eskariaren bizitasun apalagoaren ondorio zuzena izan da. Izan ere, barne eskaria %3,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoan jasotako tasa baino sei hamarren gutxiago delarik. Aitzitik, kanpo saldo garbiak barne produktu gordinaren hazkundeari egin zion ekarpen negatiboa ez zen aldatu aurreko emaitzaren aldean (-0,2 hamarren). Barne eskaria osatzen duten atalen artean, hazkunde txikiagoa nabarmena izan zen kontsumo pribatuan, baina are biziagoa kapital eraketa gordinetan.

Barneko azken kontsumoa %2,9 areagotu zen 2008ko lehen hiruhilekoan urte arteko tasan neurtuta, 2007ko azken hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Beraz, azken hiruhilabeteetako motelaldiak jarraipena izan du aurtengo lehen hiruhilekoan ere. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastua nolabaiteko sendotasunari eutsi zion arren, berririo gutxitu zuen bere hazkundera. Moteltzeko joera horretan familien kontsumoak izan duen apalaldia oso garrantzitsua izan da. Aitzitik, administrazio publikoek azken kontsumoan eginiko gastuak goranzko joera erakutsi zuen aurreko hiruhilabetearen aldean eta %4,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen.


EAEko familien kontsumoak duela bi urte hasitako moteltzeari eutsi zion eta 2008ko lehen hiruhilekoan %2,4 hazi zela estimatu da. Epealdi horretarako argitaratu diren koiunturako adierazleak aztertzen direnean, agerian geratzen da kontsumo pribatuko aldagaiek, oro har, bizitasuna galtzeko joera hartu zutela. Kontsumitzaileen konfiantza indizea zertxobait suspertu zen aurreko hiru hilabeteen aldean. Hala ere, adierazle horren alderdi ezkorrena lan merkatuan agertzen da, langabeziaren bilakaeraz duten iritziak nabarmen egin duelako okerrera. Era berean, familien kopuru handi baten ustez oraingoa ez da une egokia erosketa garrantzitsuak edo inbertsio handiak egiteko. Inbertsio handiak egiteko probabilitatea aztertzen duen indizea bereziki etxebizitzaren atalean okertu da. Kontsumoa neurtzen duten beste adierazle batzuek beharazko joera mantendu dute. Horien artean, txikizkako merkataritzako salmentek eta azalera handietako saltokien salmentek moteltzeko joera bizia erakutsi dute aurtengo lehen hilabeteetan. Beste aldetik, kontrako norabidea seinalatzen du automobilen matrikulazioak, suspertzeko joera adierazten duen tasa bat lortu duelako.

Kontsumo pribatuaren bilakaerak azken hilabeteetan izan duen ezaugarri nagusia bizitasun falta izan da. Erritmo galera hori azaltzen duten arrazoien artean aipatu behar dira enplegu gutxiago sortu izana, inflazioaren gorakada eta ziurgabetasuneko ingurunea, horiek guztiek errenta erabilgarrian eragin zuzena dutelako. Halaber, familien eskuetan dauden aktibo errealek balioa galdu dute, aberastasun efektua gutxituz. Horren ondorioz, familiek zuhurragoak izan behar dute gastatzeko orduan eta aurrezteko joera handiagoa erakutsi. INEk 2008ko lehen hiruhilabeteeko hipotekei buruz argitaratu dituen argibideak aztertuta, EAEn kontratatutako hipoteken kopurua eta beraren balioa nabarmen jaitsi direla agerian gelditzen da. Oro har, finantza erakundeek eman duten kreditua zertxobait moteldu da, baina oraindik bi zenbakiko tasan ari da hazten.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Barne eskariaren osagaien artean kapitaleko eraketa gordina izan zen hazkunde tasa handiena lortu zuena. Hala ere, bere gehikuntza tasa ez zen iritsi aurreko mailara. Eustatek %3,6ko urte arteko hazkunde tasa estimatu du inbertsiorako, hots, iazko azken hiruhilekoan lortutakoa baino bederatzi hamarren txikiagoa. Tasa hori ekipamendurako ondasunen eta eraikuntzaren artean banatzen ez bada ere, eskura dauden adierazleek izan duten joerak pentsarazten du gutxiago hazteko joera orokorra izan dela agregatu osoan. Eraikuntzan eginiko inbertsioak indarra galdu du, nabarmen, higiezinaren arloak bizi duen doikuntza handiaren ondorioz. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunek aurreko epealdietan erakutsi zuten bizitasuna ez da berritu 2008ko lehen hiruhilekoan. Ondasun horien barneko ekoizpenaren adierazleak hazkunde erritmoa galgatu du.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	4,2	3,5	3,9	3,7	3,3	3,2	2,4
BMI txikizkaria	1,8	1,6	3,6	0,3	1,9	0,8	-2,5
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	1,7	-0,4	3,2	-1,2	-1,4	-2,2	-4,6
Landunak txikizkarian	2,0	3,3	2,7	2,6	3,0	3,3	1,2
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,2	-1,0	-3,4	-2,6	0,3	1,8	2,3
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,3	96,0	99,0	101,0	96,0	88,0	92,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	6,0	5,9	6,6	6,6	5,8	4,5	3,6
IPI ekipamendua EAE (*)	8,2	7,4	10,9	9,0	6,4	3,1	0,5
IPI ekipamendua Estatua (*)	7,9	6,0	8,4	5,9	5,6	3,9	2,6
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	6,1	18,4	12,3	10,7	16,6	31,0	18,9
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-2,2	0,0	0,8	1,3	-0,9	-1,2	-27,9

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

EAEko enpresariaren inbertsio egitasmoetan itxuraz gertatu den geldialdiak zenbait arrazoi ditu. Eskariaren hazkundeaz dauden aurreikuspenak beherantz berrikusi dira, merkatuetan ziurgabetasuna da nagusi eta banku erakundeek kreditua emateko orduan baldintzak gogortu dituzte.


Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Munduko ekonomia nagusiek erakutsi duten sendotasunak eta garapen bidean dauden herrialdeen hazkunde biziak nazioarteko merkataritza aurtengo lehen hilabeteetan berriro sendo haztea lortu dute. Hala eta guztiz ere, ezin da baztertu datozen hilabeteetan munduko ekonomian dauden arriskuek hazkundera gehiago apalduko dutela eta, horren ondorioz, kanpo eskariak ahulduko direla. Izan ere, horixe da NDFk eginiko aurreikuspenek adierazten dutena, nazioarteko merkataritza 2008an %5,6 haziko dela zehazten duenean, 2007ko tasa puntu bat eta bi hamarren gorago kokatuta zegoelako.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Txinak portaera harrigarria erakutsi zuen berrito eta esportazioak %20 baino gehiago areagotu zituen. Hala ere, aurtun gutxiago haziko direla aurreikusten da, beste herrialdeetako eskaria motelduko delako, AEBetako higiezinaren krisiarengatik eta, hainbat arlotan, atzerrian saltzeko tasak altuagoak direlako eta zerga abantailak, ordea, txikiagoak direlako. Europar Batasunak ere goranzko joera erakutsi zuen eta superabita lortu zuen kontu korronteko balantzaren, merkatuetan ezegonkortasuna egon arren eta euroa garesti kotizatu arren. AEBek, berriz, esportazioak areagotu zituzten, dolarra ahul dabilelako eta bere bezero nagusietako eskariak (Europar Batasuna, Mexiko eta Kanada) oraindik sendo daudelako. Horri esker kontu korronteko defizita BPGren %5,0ra murriztu zen, 2004ko lehen hiruhilekotik izandako txikiena baita.

EAEko ekonomia ondo baliatu zen nazioarteko testuinguru horretaz eta oraindik garrantzitsua den BPGren hazkunde bat (%3,1) lortu zuen. Oinarrian, gehikuntza tasa apaldu duen barne eskaria eta ekarpen negatiboa bi hamarrenetara mugatu zuen kanpo saldoa daude, azken hau 2001eko hasieratik jaso den emaitza onena delarik.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	16,4	14,1	9,2	16,6	17,2	13,6	5,0	4.772.111
Ez-energetikoak	14,1	14,8	10,4	17,8	17,6	13,5	3,1	4.321.584
Ekoizkin energetikoak	51,4	6,4	-3,6	3,1	13,1	14,2	28,5	450.527

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Hain zuzen ere, atzerriara zuzendutako esportazioen guztizkoa %5,0 areagotu zen termino nominaletan, 4.772 milioi euroak gaudituz, 2007ko epe berean 4.544,2 milioi eurora iritsi zen bitartean. Inportazioak, berriz, 5.070,6 milioi eurora heldu ziren urteko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko epe berean erositakoa baino %18,5 gehiago delarik. Bi bilakaera horien ondorioz, atzerriarekiko saldoan guztira defizita jaso zen bigarren hiruhilekoz jarraian eta 298,5 milioi euroan kokatu.

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	20,2	9,4	4,7	12,7	5,9	13,6	18,5	5.070.594
Ez-energetikoak	14,6	17,1	20,1	21,7	15,2	12,2	7,1	3.336.069
Ekoizkin energetikoak	32,9	-5,2	-22,0	-3,5	-9,9	17,0	49,0	1.734.525

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Energiaren salerosketak kontuan hartu gabe –inportazioen atalean guztizkoaren %34 baino gehiago baitira-, ezberdintasun batzuk hauteman dira magnitude nagusiek eskainitako joerarekin. Izan ere, energiakoak ez diren esportazioek eta esportazioen guztizkoak moteltzeko norabide bera eskaini zuten, baina energiaz bestelako inportazioen joera ez zen bat etorri inportazioen guztizkoak izan zuenarekin, hirugarren hiruhilekoz jarraian hazkunde erritmoa galgatu zuelako. Beraz, inportazioen gorakada bereziki energiako ekoizkinen garestitzearen ondorioa da, EAEko barne eskariaren moteltzeak gainontzeko produktuen inportazioa galgatzeko ari den bitartean. Bi mugimendu horien ondorioz, energiaz bestelako merkataritza saldoa positiboa izan zen eta 989,5 milioi euroak gaintu zituen. Kopuru hori gutxiatik ez da iristen aurreko urteko epe berean lortutako mailara, baina hala ere kanpo merkataritzako seriean jaso den kopururik altuenetakoa da.

Inguruneko merkatu nagusien bilakaera oraindik ona izan zen arren, EAEko esportazioak nabarmen moteldu ziren 2008ko lehen hiruhilekoan. Halaber, EAEko ekoizleek konfiantza gutxiago adierazi zuten etorkizunaz, industriaren eskari zorroaren bilakaerak adierazi zuenez, salmenten igurikimenak nabarmen jaitsi zirelako. Egia da Estatuko merkatua oraindik egonkor samar mantentzen dela, baina atzerrira bideratutako esportazioak berriro gutxitu ziren eta aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten. Esportazioen makalaldi hori Aste Santuaren egutegiaren ondorioa izan daiteke, aurten jai horiek lehen hiruhilekoan ospatu baitira, iaz bigarrenean ospatu ziren bitartean. Beraz, datorren hiruhilabeteko datuak ezagutu eta aztertu beharko dira atzerrian eginiko salmentak indarra galtzen ari ote diren edo ez zehaztu ahal izateko.


EAEko industriaren eskari zorroa(*)

8. irudia

Guztira



Atzerria



(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea).

Iturria: Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa.

Atzeriarekin saldu eta erosi diren produktuen analisiak aldakuntza garrantzitsuak eskaini ditu izan ohi diren joeren aldean. Metal arruntak eta beren manufakturak izeneko atalak nabarmentzekoa izan da esportazioen guztizkoan duen pisuarengatik eta hazkunde tasa biziengatik, baina lehen hiruhilekoan %-1,0 jaitsi zen, 2003. urtearen erdialdetik inoiz jasotako emaitza txarrena baita, batez ere burdina eta altzairu galdaketaren salmenten beherakadaren ondorioz. Ekipamendurako ondasunek ere, esportazioen beste oinarri nagusia baita, aurrekoetan baino gutxiago hazi zen, bai makinak eta tresnak adarrean, bi zenbakiko tasak atzean utzita, bai garraio materialean.

Alde positiboenean kokatu ziren arlo kimikoa, sei hilabetez beherakadak jaso ondoren oso hazkunde sendoa lortu baitzuen, eta kautxua eta plastikoa biltzen dituen adarra, 2007ko amaieran izandako jaitsieraren ondoren suspertu baitzen. Energiak, prezioen etengabeko gorakadarekin bat eginez, laugarren gehikuntza jarraitua lortu zuen eta %30aren inguruko tasa jaso zuen.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

11. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	16,4	14,1	9,2	16,6	17,2	13,6	5,0	4.772.111
Nekazaritzakoak	10,2	18,6	14,3	23,6	7,2	28,7	8,5	160.984
Energia ekoizkinak	51,4	6,4	-3,6	3,1	13,1	14,2	28,5	450.527
Kimikoak	0,1	-6,2	-8,2	1,9	-1,1	-16,8	14,2	112.880
Kautxua eta plastikoa	40,5	6,4	15,2	18,7	7,5	-10,2	1,3	371.657
Papera	5,5	11,2	9,2	16,8	10,8	7,9	3,1	126.864
Metalak eta manufakturak	17,4	23,3	20,6	25,6	39,0	10,9	-1,0	1.287.789
Ekipamendu ondasunak	10,3	12,4	4,0	13,4	9,7	21,8	6,3	1.996.775
- Makinak eta tresnak	10,6	13,1	6,2	12,6	13,3	19,5	9,5	951.145
- Garraio materiala	10,0	11,8	2,3	14,0	6,4	24,0	3,6	1.045.630
Bestelako manufakturak	13,4	14,2	20,7	18,5	13,5	4,2	-0,8	236.158
Sailkatu gabeak	14,5	12,9	-19,8	23,5	41,1	27,8	-28,4	28.476

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERITIK

12. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	20,2	9,4	4,7	12,7	5,9	13,6	18,5	5.070.594
Nekazaritzakoak	-0,1	5,0	2,7	1,6	5,1	10,5	11,5	219.589
Energia ekoizkinak	32,9	-5,2	-22,0	-3,5	-9,9	17,0	49,0	1.734.525
Kimikoak	20,2	-1,8	5,9	-15,7	10,5	-5,8	12,2	134.163
Kautxua eta plastikoa	23,2	17,6	13,3	34,2	13,9	11,1	2,7	211.901
Papera	11,3	9,7	1,6	14,0	11,7	12,1	0,5	100.232
Metalak eta manufakturak	27,1	21,6	38,1	38,6	17,7	-2,2	-0,3	1.209.977
Ekipamendu ondasunak	6,1	18,4	12,3	10,7	16,6	31,0	18,9	1.169.858
- Makinak eta tresnak	12,6	9,9	19,3	14,3	14,8	-4,1	5,3	677.232
- Garraio materiala	-5,4	35,8	1,3	3,2	20,7	112,2	44,7	492.626
Bestelako manufakturak	9,0	15,4	16,4	16,2	13,6	15,4	-1,8	286.034
Sailkatu gabeak	-52,1	-9,8	-16,1	-26,9	0,3	6,8	32,5	4.315

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioen atalean ere, metal arruntak eta beren manufakturak delako adarrak hazkunde negatiboa erakutsi zuen, baina nolabaiteko hobekuntza izan zuen aurreko hiruhilabeteen jasotako emaitzaren aldean. Hala eta guztiz ere, oraindik oso urrun dago lehengo garaietan lortu ohi zituen hazkunde altuetatik. Ekipamendurako ondasunak ere gutxiago hazi ziren, baina bilakaera ona izan zuten, zeren eta makinak eta tresnak taldeak hazkunde positiboa berreskuratu baitzuen eta garraio materiala ohiko ibilbidearekin bat datozen mailetan egonkortu baitzen. Arlo kimikoak gehikuntza tasa positiboak jaso zituen berriro, baina ez zuen joera garbirik erakutsi. Energiako ekoizkinek bere hazkunde tasa modu harrigarrian sendotu zuten, ia urtebete batez beherakadak jaso eta gero.

Energiakoak ez diren esportazioen helburuari dagokionez, moteltzeko joera ekonomia eremu nagusietan hauteman zen. Hazkunde tasen bilakaera ikusita salmentak, neurri batean, europar herrialdeetatik garapen bidean dauden ekonomietara desbideratu direla pentsatu badaiteke ere, eremu bakoitzera bideratu diren salmenten ehunekoak aztertu ondoren garbi geratzen da ia ez dela inolako aldaketarik gertatu. Hain zuzen ere, eta Frantziara, Alemaniara, Italiara eta Erresuma Batura bidalitako salmentak gutxiago izan ziren arren, herrialde horiek dira gaur egun EAEko enpresen bezero nagusiak. Ohiko helburu horietan zergatik saldu den gutxiago azaltzeko, gogoratu behar da 2007ko lehen hiruhilekoan salmentak izugarri igo zirela, gaur egungo balioekin alderatuta geldotasuna agerian utziz. Beste aldetik, Europar Batasuneko herrialde berriek goranzko joerari eutsi zioten, baina AEBetan saldutakoa, euroaren sendotasunaren ondorioz, berriro gutxitu zen bitartean.

ELGE erakundean parte hartzen ez duen eremuak lortu zituen emaitza onenak. Hala Errusiak nola Txinak eta Brasilek hazkunde erritmo garrantzitsuak jaso zituzten, hiruretan bi zenbakiko tasak lortuta. Nabarmentzekoa da Errusian erositakoaren bilakaera, urtebete batean ia bikoztu baita.

Energiaz bestelako inportazioei dagokienez, urte arteko aldakuntza tasak handiagoak izan ziren, baina aurreko hiruhilabeteetako balioetara iritsi gabe. Hain zuzen ere, ELGEko herrialdeetan eginiko erosketak %7,7 areagotu ziren, aurreko hiruhilekoan jasotako %18,0 baino askoz ere gutxiago. Euroaren truke tasak azaltzen du, neurri batean, erakunde horren barneko eremuetan gertatu diren ezberdintasunak. Alde batetik, Europar Batasunean eginiko erosketak nabarmen apaldu ziren (%16,8tik %7,3ra), nahiz eta Alemaniatik eta Frantziatik etorritakoak erritmo bizian hazten jarraitzen duen. Beste aldetik, AEBetan erositakoak oso hazkunde garrantzitsu bat (%30,1) jaso zuen. Japoniak ere hobekuntza arina izan zuen, baina ez zen nahiko izan aldakuntza tasa positiboetara itzultzeko (%-3,4).

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	14,1	14,8	10,4	17,8	17,6	13,5	3,1	4.321.584
ELGE	14,6	9,9	11,6	14,8	7,2	6,2	0,3	3.523.563
Eurogunea	16,4	10,4	12,3	17,1	6,9	3,0	0,7	2.550.685
Europako kide berriak	26,5	42,3	17,2	29,1	17,1	27,8	26,6	249.002
Europar Batasuna 25	15,8	10,8	12,5	17,9	6,7	6,1	2,7	3.188.145
Frantzia	10,4	6,8	7,1	12,3	4,9	2,8	0,0	809.189
Alemania	23,5	13,9	25,7	18,0	2,5	10,0	-2,1	724.953
Erresuma Batua	3,4	13,5	11,2	19,1	-1,3	25,7	-1,3	299.794
Italia	24,8	-2,7	-0,8	3,4	-1,7	-11,0	-5,6	334.891
ELGEko besteak (1)	11,8	9,8	8,8	4,7	12,8	13,4	-3,4	584.420
AEB	16,3	-8,4	3,9	-26,0	-4,0	-2,0	-16,0	133.503
Japonia	-28,3	-1,4	46,3	40,7	28,4	-42,5	47,7	16.430
ELGETik kanpokoak	12,0	38,9	4,7	34,6	72,7	46,8	17,2	798.021
Errusia	54,9	41,3	71,1	39,8	60,6	9,9	54,7	46.336
Txina	28,1	15,5	-15,4	29,1	29,4	29,7	44,2	93.206
Brasil	-14,1	27,9	40,4	81,6	35,0	-11,4	16,4	77.130
Munduko besteak	12,1	42,9	2,1	30,5	82,5	59,5	11,8	581.349

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.
Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ELGE erakundetik kanpo, 2007ko laugarren hiruhilabetean erosketak gutxitu ondoren, inportazioak zertxobait suspertu dira eremu osoan (%-5,1etik %5,3ra), baina azken urteetan ezagutu den bilakaeratik oso urrun daude oraindik. Txinatik iritsitako inportazioak %20 baino gehiago areagotu ziren berriro, baina garbi dago aurreko epealdietan baino gutxiago ari direla hazten. Beste aldetik, hala Errusiak nola Brasilek hazkunde positiboak lortu dituzte 2007ko amaieran izandako jaitsieraren ondoren.

EAE-K ATZERRIAN EROSITAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA

14. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-I
	2006	2007	2007				2008	
			I	II	III	IV	I	
Guztira	14,6	17,1	20,1	21,7	15,2	12,2	7,1	3.336.069
ELGE	11,4	16,8	16,8	19,4	12,7	18,0	7,7	2.510.558
Eurogunea	12,3	19,0	15,8	20,5	13,9	23,2	11,2	1.943.141
Europako kide berriak	27,3	44,9	42,7	17,5	15,0	14,4	2,9	101.827
Europar Batasuna 25	10,9	14,9	15,1	16,4	10,6	16,8	7,3	2.267.145
Frantzia	14,9	11,2	19,0	13,8	7,4	5,7	8,7	502.997
Alemania	3,3	38,4	6,7	34,5	28,4	82,3	30,8	677.722
Erresuma Batua	2,6	-13,3	2,7	-10,4	-13,6	-29,2	-24,0	164.974
Italia	9,6	18,2	24,8	24,0	19,2	6,9	0,1	317.968
ELGEko besteak (1)	17,5	32,6	38,5	40,0	29,1	25,2	9,5	345.240
AEB	30,6	49,4	20,0	65,9	64,3	47,1	30,1	82.499
Japonia	-1,3	7,5	0,8	18,7	19,8	-5,9	-3,4	37.388
ELGETik kanpokoak	25,6	18,0	31,0	28,9	22,3	-5,1	5,3	825.511
Errusia	17,5	10,4	22,2	24,3	8,3	-10,8	11,0	107.052
Txina	38,1	45,9	55,4	56,6	49,0	29,1	20,5	297.634
Brasil	12,4	-14,5	-5,2	1,0	33,8	-64,4	0,1	43.750
Munduko besteak	24,0	8,2	26,3	21,5	8,0	-15,4	-5,0	377.075


Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Lan merkatua

Lan merkatua aztertzen duten estatistikak asko direnez, komeni da gogoratzea kontu ekonomikoetan kalkulatzeko diren lanpostuak direla barne produktu gordinaren bilakaerarekin bateragarriena den analisi iturria. Hala ere, argitaratzen diren gainontzeko adierazleak ere kontuan hartzea komenigarria da. Aurrekoa adierazita, eta Eustatek hiruhilabetekako kontuetan estimatu duenaren arabera, 2008ko lehen hiruhilekoan EAEko ekonomiak lanpostuak erritmo garrantzitsuan sortzen jarraitu zuen, baina aurreko hiruhilekoetan ezagututako tasara iritsi gabe. Enplegua sortzeko ahalmena apaldu den arren, lan merkatua oraingoz ez da asko okertu, zeren eta langabezia tasak oso maila apaletan jarraitzen baitu (%3,3), oraindik enplegu betetzat jo daitekeena.


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Oro har, lan merkatuaren estatistikek 2008ko lehen hiruhilabeterako estimatu duten enplegu sorrera hurbildu dute eta oraingo urkilaren muturretan BJAren %1,0 eta Gizarte Segurantzaren afiliazioaren %1,9 daude. Hala eta guztiz ere, estatistika bakoitzak adierazten duen joera oso ezberdina da. Izan ere, bi inkestek bizkortzeko joera hauteman dute, oso maila apaletatik abiatuta. Hiruhilabetekako kontu ekonomikoek eta afiliazioaren erregistroek, ordea, enplegua sortzeko ahalmena murriztu dela adierazi dute. Azken joera hau koherenteagoa da EAEko ekonomiaren bilakaerarekin.

Analisia hiruhilabetekako kontuek emandako datuetan fokatzen bada, adierazi behar da EAEko ekonomiak nozitu duen moteltzeak bere eragina izan duela enplegua sortzeko ahalmenean, 2007ko laugarren hiruhilabeteko %2,3tik 2008ko hasierako %1,7ra igaro baita. Horren ondorioz, ekoizkortasun irabaziak ia ez dira aldatu aurreko bi hiruhilekoen aldean eta 1,5 puntuetatik zertxobait beherago jarraitzen dute.

Analisia ekonomiaren arloka egiten denean, agerian gelditzen da sektore guztiek enplegu gutxiago sortu zutela. Hain zuzen ere, eraikuntzak erakutsi zuen ahultasun handiena eta %0,3 bakarrik hazi zen urte arteko tasa, 1997. urtetik inoizko txikiena baita, bereziki etxebizitzaren arloaren geldotasunaren ondorioz. Beste aldetik, industriaren enpleguak hiru hamarrenetan moteldu zuen bere hazkunde tasa, arlo horren ekoizpenak izan zuen bultzada txikiagoaren ondorioz. Azkenik, zerbitzuek bildu zuten enplegu sorrera handiena berrir, hala langileen kopuruan nola aldakuntza tasan, osasuneko jardueretan, ostalaritzan eta gizarte zerbitzuetan oinarrituta.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Enplegua guztira	2,3	2,4	2,6	2,4	2,3	2,3	1,7
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,9	1,5	1,5	1,7	1,4	1,3	1,4
Enplegua lehen arloan	0,8	-1,9	2,2	-8,6	-4,6	4,0	2,1
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-10,5	10,3	5,8	22,0	6,9	6,5	2,4
Enplegua industrian	-0,6	0,7	0,3	0,7	1,0	0,9	0,6
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	5,5	3,1	4,6	3,9	2,6	1,4	1,3
Enplegua eraikuntzan	3,7	2,2	3,4	2,7	2,0	0,7	0,3
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	1,3	1,8	1,1	1,7	2,3	2,2	2,1
Enplegua zerbitzuetan	3,3	3,3	3,4	3,5	3,3	3,2	2,3
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	0,5	0,4	0,3	0,1	0,3	1,0	1,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Oso deigarria da ekoizkortasun irabazien bilakaera sektoreka aztertuta, industriak izan ohi duen lidergoak osaera banatuago bati bidea utzi diolako. Hain zuzen ere, industriaren irabaziak 1,3 puntura jaitsi dira, 2007. urtean lortutakoaren erdia baino gutxiago delarik. Itxuraz, industriaren gaur egungo moteltzea iragankorra izango dela pentsatu dute enpresek eta ez dute neurririk hartu langileen kopurua egokitzeko, oraingo egoera laster gaindituko delakoan. Eraikuntzak bereganatu du ekoizkortasunaren lidergoa, beharbada arloaren barruan gertatzen

ari den osaera berriaren ondorioz, enplegu gehien behar duten jarduerak (etxebizitzaren eraikuntza) ekoizkortasun handiagokoei (obra zibila) tokia uzten ari zaielako. Azkenik, zerbitzuek ere beren ekoizkortasuna hobetu dute azken bi hiruhilabeteetan.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

16. TAULA

Ehunekoa

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Partaidetza tasa guztira	54,6	54,6	54,6	54,0	54,9	55,1	55,1
- Gizonak	64,4	65,0	64,8	64,6	65,5	64,9	64,6
- Emakumeak	45,2	44,9	44,9	44,0	44,8	45,8	46,1
- 16 urtetik 24ra	34,9	33,5	32,6	32,3	35,1	33,9	35,8
- 25 urtetik 44ra	85,4	85,9	85,7	85,4	86,1	86,4	85,9
- 45 urte eta gehiago	36,6	36,7	36,6	36,0	36,8	37,3	37,6
Enplegu tasa guztira	52,3	52,9	52,7	52,2	53,2	53,4	53,3
- Gizonak	62,0	63,0	62,7	62,4	63,8	63,1	62,8
- Emakumeak	43,2	43,3	43,3	42,5	43,2	44,2	44,3
- 16 urtetik 24ra	32,1	30,9	29,6	30,0	32,6	31,5	32,6
- 25 urtetik 44ra	81,3	82,8	82,6	81,9	83,3	83,2	82,8
- 45 urte eta gehiago	35,8	36,0	35,8	35,4	36,0	36,7	36,9
Langabezia tasa guztira	4,1	3,3	3,4	3,4	3,1	3,1	3,3
- Gizonak	3,7	3,0	3,3	3,4	2,7	2,8	2,9
- Emakumeak	4,5	3,6	3,7	3,4	3,6	3,6	4,0
- 16 urtetik 24ra	8,1	7,6	9,2	7,0	7,2	7,1	8,8
- 25 urtetik 44ra	4,7	3,7	3,6	4,1	3,3	3,7	3,7
- 45 urte eta gehiago	2,2	1,8	2,1	1,8	2,0	1,5	1,9

Iturria: BJA (Eustat).

BJA inkestak argitaratu dituen datuen arabera, enplegua sortzeko erritmoan gauzatu den motelaldiak bereziki gizonengan izan du eragina, azken hamabi hilabeteetan 700 lanpostu bakarrik (%0,1eko gehikuntza) bete zituztelako. Emakume landunek, berriz, 8.600 lanpostu berri lortu zituzten (%2,1). Bultzada horri esker, EAEko emakumeak Lisboako estrategian zehaztu zen enplegu tasa, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarentzat, 2010. urtean %60ra igotzeko helburura hurbiltzen ari dira.

Analisia adin tarteka egiten denean, azpimarratzekoa da enpleguak gazteenen artean izan duen susperraldi nabarmena. Urtebete batean, kolektibo horren enplegu tasa %29,6tik %32,6ra igo

da, landun gazteen kopurua 3.600 lagunetan areagotu baita. 45 urtetik gorako biztanleriak ere hobetu zuen bere enplegu tasa eta puntu luze bat handiagoa da orain duela urtebete bat baino. Aitzitik, bitarteko adin tartean aurrerapenak oso mugatuak izan dira, bere enplegu tasa dagoeneko nahiko altua delako.

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

17. TAULA

Mila lagunekoak eta urte arteko tasak

	I-2008	2007				2008
		I	II	III	IV	I
Parte hartzaileak	1005,1	0,3	0,3	0,5	0,0	0,9
- Gizonak	573,2	0,8	1,7	0,9	-0,1	-0,3
- Emakumeak	431,9	-0,3	-1,6	-0,1	0,1	2,5
Landunak	971,5	2,1	1,1	1,1	0,3	1,0
- Gizonak	556,8	2,4	2,2	1,5	0,1	0,1
- Emakumeak	414,7	1,7	-0,5	0,5	0,5	2,1
Langabeak	33,6	-32,3	-17,7	-14,9	-8,5	-1,5
- Gizonak	16,4	-30,7	-10,9	-16,7	-8,0	-12,3
- Emakumeak	17,2	-34,2	-25,7	-13,1	-8,3	11,7
Langabezia tasa	---	3,4	3,4	3,1	3,1	3,3

Iturria: BJA (Eustat).


Azpimarratu behar den beste ezaugarri bat da lan merkatuan parte hartzeak izan duen bultzada. 2007ko amaieran gertatu zen geldotasunaren ondoren, 2008. urte hasieran biztanleria aktiboa %1aren inguruan areagotu da. Gehikuntza hori guztia emakumeen kolektiboan gauzatu da, zenbait hiruhilekotan beherakadak jaso eta gero lan munduan gero eta gehiago parte hartzeko joera berreskuratu baitute. Hala eta guztiz ere, guztizkoaren partaidetza tasa ez zen aldatu aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean, zeren eta emakumeen igoera gizonen jaitsiera berdindu zuelako. Halaber, interes gehiago hauteman da gazteen artean lan merkatuan parte hartzeko eta kolektibo horren partaidetza tasa bi puntuz igo da 2007ko batez bestearen aldean.

Langabeziari dagokionez eta BJAren datuen arabera, jaitsiera gero eta txikiagoa da. Are gehiago, emakumeen artean langabezia nabarmen areagotu da, sexuen arteko aldeak igoaraziz. Horren ondorioz, lanik gabe dauden emakumeen kopuruak berriro gaingitu du gizon langabeena, lehenengo aldiz 2005. urtetik. Hala eta guztiz ere, sexuen arteko aldeak oraindik oso txikiak dira eta 800 emakume gehiago bakarrik daude langabezian. Hori dela eta, emakumeen langabezia tasa %4an kokatu zen eta gizonena %2,9an. Guztizkoaren langabezia

tasa aurreko hiruhileko mailatik bi hamarren gorago kokatu da, baina oraindik enplegu beteko mailan dago eta Europako herrialdeen arteko emaitza onenen artean. Langabeziak izan duen okertzea INEMek erregistratu dituen datuen bilakaerarekin ere egiaztatu da, azken hau ere negatiboagoa izan zelarik. Erakunde horrek argitaratu dituen emaitzen arabera, lanik gabeko lagunen kopurua aurreko erritmo garrantzitsuan ari da hazten, maiatzean %10era iritsi arte. Hori horrela izan arren, langabezia tasa pairatzen ari den okertzea askoz ere garrantzitsuagoa da Estatuko gainontzeko erkidegoetan, beraien ekoizpen egituran eraikuntzak pisu handiagoa duelako.

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.


Alderdi positiboen artean adierazi behar da aldi baterako kontratua duten soldatapekoen ehunekoak behera egin zuela, zenbait hiruhilekoz tasa gutxitzea uko egin eta gero. Hain zuzen ere, BJAren estimazioen arabera, soldatapeko horien kopurua %-5,9 murriztu zen 2008ko lehen hiruhilekoan eta kontratu mugagabea dutenena, ordea, %5,1 igo zen. Bi bilakaera horien ondorioz, aldibaterakotasun tasa %20,5era jaitsi zen. Tasa hura oraindik oso urrun dago Europako mailetatik, baina beherakada garrantzitsua da eta 2006ko hirugarren hiruhilekotik erakutsi duen joerari beste bultzada bat eman dio.

Azkenik, INEMen egindako kontratuen kopuruak bilakaera ona izan zuen 2007ko hiruhileko beraren aldean, hala kontratu mugagabeak (%3,7), BJA inkestaren emaitzak baieztatuz, nola kontratuen guztizkoa (%1,0) igo zirelako. Aldi baterako kontratuak ere areagotu ziren, baina

oso gutxi (%0,8). Mugagabe bihurtutako kontratuen kopuruak emaitza positiboak eskaini zituen otsailean eta martxoak, baina hiruhilabete osorako emaitzen bilakaera negatiboa izan zuen (%-25,8).

Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen atalean adierazi behar da KPI indizearen urte arteko aldakuntza tasak hazten jarraitu zuela aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean, %4,3an kokatu arte, hots, hiru hamarren gorago. Inflazioaren goranzko joera horrek berriro du oinarria lehengaien bat-bateko garestitzean, bereziki petrolioarena, eta baita landutako elikagaienean ere. Are gehiago, joera hori zuzentzeko zantzurik ez da hautematen eta argitaratu den azken datuan, maiatzekoan, urte arteko tasa %4,4ra igo da.



Iturria: Eurostat eta INE.

Petrolioaren salneurriak asterik aste inoizko maila altuena markatu du eta 135 dolarren inguruko preziora iritsi da, urte arteko hazkundera maiatzetan %83,4ra iritsi zelarik. Ibilbide hori ez da erraz ulertzen ekonomia moteltzeko joeran dagoen une batean. Hala eta guztiz ere, erantzuna, alde batetik, espekulazioan dago eta, beste aldetik, eskariaren eta eskaintzaren arazoetan. Petrolioaren salneurria igoko delako usteak eta inbertsiorako beste produktu

batzuen okertzeak –bereziki, higiezinetan inbertitzeko aukera- erakargarriagoa egin dute petrolioak. Eskaintzaren ikuspegitik, zailtasun teknikoak eta geopolitikoak daude merkatuan oraingoak baino kopuru askoz handiagoak jartzeko. Beste aldetik, petrolioaren eskaria etengabe ari da hazten. Aurreko guztiak pentsarazten du etorkizunean eskasiaren egoera bat sortu daitekeela, etorkizuneko merkatuetan adosten diren salneurriak gero eta gorago bultzatzen direlarik.

Inflazioaren bilakaera kaltetu zuen beste alderdi bat janaritarako lehengaiak izan dira, The Economist aldizkariak egiten duen indizearen arabera ia %37 garestitu baitira iazko hiruhileko beraren aldean. Kasu horretan arazoa egiturazko desoreka batean datza. Zehazkiago adierazita, herrialde askotan ereiteko lurrak murritzatu dira, uzta txarrak bildu dira, bioerregaiak lortzeko eskaria handitu da eta garapen bidean dauden herrialdeetako dietak hobera egin du. Arrazoi horien ondorioz elikagai batzuk, hala nola arroza, ez dira nahi beste ekoitzi eta beraien salneurriak garestitu dira.

Petrolioaren eta elikagaien garestitzeak kalte handia egin dio EAEko ekonomiari ere, nahiz eta Eurogunearekiko inflazio tarteak, maitatzeko datuak kontuan hartuta, %1aren azpitik kokatu zen eta zazpi hamarrenetara mugatu. Elikagaiek eta energiako ekoizkinek erosketa saskian pisu gehiago dute, bereziki azken horien gastua oso nabarmen areagotu baita gaur egun, azken hamarkadetan automobilen parkea biztanle bakoitzeko asko handitu delako. Zalantzarik gabe, pisuarena kontuan hartu beharreko arrazoi bat da Eurogunearekiko inflazio tarteak azaltzeko orduan, baina ez dira ahaztu behar beste arrazoi batzuk ere. Petrolioari dagokionez, alde batetik, gogoratu behar da erregaiei gainera zeharkako zergen pisua txikiagoa dela EAEn Europan baino, , petrolio gordinaren prezioen aldakuntzek inflazioan eragin handiagoa utziz. Beste aldetik, petrolioarekiko mendekotasun handiagoa egoteak KPI indizearen gainera zeharkako eraginak nabarmenagoak bihurtzen ditu. Azkenik, elikagaien garestitzearen jatorria nazioarteko merkatuen tentsioan ez-ezik, banaketaren arloan dagoen lehia faltan ere bilatu behar da.

Inflazioaren osagai nagusien artean, adierazi behar da bigarren hilabetez jarraian gehikuntza tasa handienak landutako elikagaiek, %7,6ko hazkundearekin, eta energiako ekoizkinek, %12,6ko gorakada batekin, jaso zituztela. Bi talde horiei gehitu behar zaizkie landu gabeko elikagaien garestitzea (%6,2 aurtengo lehen hiruhilekoan eta %5,2 aurrekoan) eta zerbitzuena. Azken hauek ez dute areagotu urte arteko aldakuntza tasa (%3,8tik %3,7ra jaitsi da), baina ez dute moteltzeko inolako zantzurik erakusten. Aitzitik, industriako ekoizkinak biltzen dituen taldeak prezioen igoerak gutxitzeko joerari eutsi zion eta aurreko hiruhilabeteko %0,5etik %0,4ra mugatu zuen hazkundera urte hasieran.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2007	2008		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazioa guztira (%100)	3,4	2,8	4,0	4,3	4,4	4,4
Azpiko inflazioa (%82,9)	2,9	2,8	3,3	3,3	3,2	2,6
KPI Landutako elikagaiak (%15,6)	3,6	4,0	7,4	7,6	7,5	1,2
KPI Industriako ondasunak (%29,6)	1,4	0,7	0,5	0,4	0,1	0,0
KPI Zerbitzuak (%37,7)	3,7	3,9	3,8	3,7	3,8	1,4
Hondarreko inflazioa (%17,1)	6,1	3,0	7,2	9,5	9,0	1,8
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,4)	4,3	4,2	5,2	6,2	5,0	0,4
KPI Energia (%9,7)	7,9	1,9	9,0	12,6	15,3	1,4

Iturria: INE.

Azpiko inflazioa egonkor mantendu zen aurtengo lehen hilabeteetan, baina hau ere maila altu samarretan (%3,3) dago kokatuta. Ondasun talde horren barruan, landutako elikagaien garestitzea energiakoak ez diren industria ondasunen eta zerbitzuen bilakaerak berdindu zuen. Horiek horrela izanda, azpiko inflazioaren eta indize orokorraren arteko aldea berriro zabaldu zen, indize orokorra hiru hamarrenetan lehen hiruhilekoan eta beste hamarren bat gehiago maiatzean hazi zelako.

Kontsumoko prezioen bilakaera ekoizkin taldeka egiten denean, adierazi behar da emaitza txarrenak jaso zituztenak aipatutako lehengaiekin harreman estuenak dituztenak izan zirela, hots, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta garraioa. Bi kasuetan, urte arteko aldakuntza tasak %7 gainditu zuen lehen hiruhilekoan. Are larriagoa da garraioaren bilakaera, ondorengo hilabeteetan ere garestitzea areagotu duelako (%8,2 maiatzean). Gehikuntza tasa oso handiak jaso dituzten beste taldeak etxebizitza, irakaskuntza eta hotelak dira. Etxebizitzak ere lotura dauka petrolioarekin, berogailuetarako erregaien bitartez. Irakaskuntzan etengabe igotzen dira prezioak %4,5aren inguruan, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izeneko taldean ere garestitze nabarmenak gertatu dira.

Beste muturrean, prezioak jaitsi dira aurreko urteko epe beraren aldean bai medikuntzan bai aisialdian. Komunikazioetan eta jantzetan, hauek ere lehia gogorrari aurre egin behar diotenez, prezioen igoerak ez dira %1era iritsi. Beraz, garbi geratu da kontsumorako ondasunen taldeen artean portaera guztiz kontrajarriak hautematen direla, inflazio duala deitzen den prozesu ezagunean.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2006	2007	2007		2008	
			III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	3,4	2,8	2,5	4,0	4,3	4,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	3,0	6,7	7,5	6,9
Edari alkoholik eta tabakoa	2,0	6,6	6,0	5,9	3,6	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,4	1,4	1,4	0,8	0,7
Etxebizitza	6,3	3,6	3,3	4,5	4,5	6,0
Ettxeko hornidura	3,0	3,5	3,6	3,1	3,5	2,7
Medikuntza	1,9	-0,5	-0,9	-1,1	-0,4	-0,3
Garraioa	4,3	2,3	1,4	6,2	7,1	8,2
Komunikazioak	-1,3	0,2	0,5	0,7	0,4	0,1
Aisia eta kultura	0,4	-0,9	-1,4	-1,1	-0,2	-0,8
Irakaskuntza	4,5	4,5	4,6	4,4	4,6	4,6
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,7	4,4	4,5	4,7
Besteak	3,0	3,2	3,1	2,9	2,9	3,1

Iturria: INE.

Bestelako prezioen indizeei dagokienez, IPRIk goranzko joerari jarraipena eman zion, urte arteko aldakuntza tasa %4,6an kokatu arte, 2006ko hirugarren hiruhilekotik inoizko tasarik gorena baita. Adierazle horretan ere begi bistakoa da petrolioaren bilakaera dagoela gorakadaren oinarrian. Hori dela eta, energia produktuen ekoizpena izan zen kaltetuena, salneurriak %13,9 igo zirelako. Hala eta guztiz ere, gainontzeko atalek aurreko hiruhilekoan baino gutxiago hazi zituzten prezioak. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da bitarteko ondasunen prezioen bilakaera, %2ra iristen ez diren igoerak onartuta, azken urteetan %6tik gorako hazkundeak jaso zituen bitartean, industria lehengaiek nazioarteko merkatuetan izan zituzten garestitze handien ondorioz. Ekipamendurako ondasunen salneurriak ere modu apalean hazi ziren.


Energiako ekoizkinek eta industriaren gainontzeko ondasunek prezioen atalean erakutsi duten portaera ezberdinak adierazten du beharbada petrolio gordinaren garestitzeak eta EAEko zein herrialde bezeroetako barne eskariaren moteltzeak mozkinak murriztera bultzatu duela industria, igoera osoa azken prezioetara igaro beharrean, daukaten merkatu kuotarik ez galtzeko.

IPRIren bilakaera


12 irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

Indize orokorra



Energia



Iturria : Eustat.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

20. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008	
			III	IV	I	Apirila
Indize orokorra	5,0	4,0	3,2	4,2	4,6	3,9
Kontsumoko ondasunak	2,9	4,1	4,2	5,3	4,7	5,0
- Kontsumo iraunkorrak	0,6	1,4	1,4	1,4	2,0	2,4
- Kontsumo iragankorrak	3,8	5,3	5,5	6,9	5,8	6,0
Ekipamendurako ondasunak	0,9	3,9	4,1	4,1	3,4	2,7
Bitarteko ondasunak	6,2	6,0	5,5	2,3	2,0	1,9
Energia	8,9	-1,4	-4,4	9,0	13,9	10,4

Iturria: Eustat.

Lan kostuek ere petrolioaren garestitzeak inflazioan eragin zuen gorakada nabaritu zuten, salbagueardako klausulak aktibatu ziren heinean. Klausulak urteko lehen hiruhilekoan sartzen dira indarrean. Hain zuzen ere, lehen hiruhilabeteko igoerak (%5,9) azken urteetako tasak gainditu zituen. Azpimarratu behar da industria adarretan gertatu zen gorakada garrantzitsua (%8,2). Aitzitik, eraikuntzako kostuak moteldu ziren eta %9,1etik %4,5era jaitsi zen hazkunde tasa, sektoreak bizi dituen arazoaren ondorioz.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

21. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Kostu guztiak	2,3	4,7	4,3	4,4	5,1	4,9	5,9
- Soldata kostuak	2,2	4,8	4,9	4,5	4,9	4,8	6,1
- Bestelako kostuak	2,7	4,4	2,7	4,0	5,8	5,1	5,2
Kostu guztiak industrian	2,9	4,3	3,9	5,6	4,3	3,4	8,2
Kostu guztiak eraikuntzan	4,6	6,8	7,0	4,0	7,2	9,1	4,5
Kostu guztiak zerbitzuetan	2,2	4,7	4,2	4,0	5,4	5,1	5,0

Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenek ere inflazioaren gorakada barnean hartu zuten. Izan ere, 2007. urtean kontsumoko prezioetan gertatu ziren igoerak 2008ko negoziatziora ari dira igarotzen. Hori dela eta, soldaten batez besteko igoera %5etik gorakoa izan da, aurreko urteko batez bestea nabarmen gaituz. Aurtengo lehen hilabeteetan, urtebetea gaituzten duten hitzarmenak dira igoera handienak adostu dituztenak, urtean zehar adostutakoek zertxobait apalagoak diren gehikuntzak dituzten bitartean. Beste aldetik, sektoreko hitzarmenek enpresakoek baino hazkunde nabarmen handiagoak jaso dituzte. Joera hori ez da berria, urte gehienetan gertatu ohi delako, baina une hauetan dauden datuak ikusita, badirudi joera hori areagotu dela.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

22. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,0	4,5	4,9	4,2	5,1
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1

(*) 2008ko martxo arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Ekonomiaren moteltzea kontu publikoetan ere hasi da igartzen. Izan ere, 2008ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko epe berean baino hazkunde tasa txikiagoa izan zuten diru sarrera arruntek, erdira ere iritsi ez baitzen, sarreraren igoera %12,7tik %6,1era murriztu zelako. Emaizta horietan eragina izan zuten bai petrolioaren prezioaren gorakadak bai higiezinaren arloaren motelaldiak.

Hala eta guztiz ere, gastu arruntek ez zuten aldakuntza handirik izan aurreko epealdietako emaitzen aldean eta sarrera arruntak baino askoz ere gehiago hazi ziren. Atal horretan, aipatzekoa da transferentzia arrunten bultzada bizia, langileen eta funtzionamendurako gastuek –kontsumo publikotzat hartzen diren gastuak baitira– gorakada apalagoak baina oraindik nabarmenak izan zituzten bitartean.

Azkenik, kapitaleko eragiketen kapituluari adierazi behar da hala gastuak nola, bereziki, diru sarrerak moteldu zirela. Lehenengoei dagokienez, Europar Batasunetik iristen diren kapitaleko transferentziak gero eta txikiagoak dira, eta sarreraren atalean, obra zibilean egindako inbertsioa aurreko hiruhilabeteetako baino apalagoa izan delako. Hala eta guztiz ere, urte sasoi honetan datuek ez dute oraindik ondo islatzen inbertitzeko ahalmena duten Eusko Jaurlaritzako sailak garatzen ari diren politikak.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2008ko urtariletik martxora)

23. TAULA

Mila eurotan

	2007	2008	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	2.945.012	3.125.476	6,1
2. GASTU ARRUNTAK	2.115.581	2.384.251	12,7
Langileen gastuak	438.807	475.789	8,4
Funtzionamenduko gastuak	530.228	561.591	5,9
Finantza gastuak	4.198	6.032	43,7
Transferentzia arruntak	1.142.348	1.340.839	17,4
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	829.431	741.225	-10,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	25.041	1.755	-93,0
5. KAPITALEKO GASTUAK	132.415	121.764	-8,0
Inbertsio errealak	43.341	36.553	-15,7
Kapitaleko transferentziak	89.074	85.211	-4,3
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-107.374	-120.009	11,8
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	722.057	621.216	-14,0

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Zerga nagusien diru bilketaz argitaratu den azken informazioaren arabera, diru sarrerak %5,0 areagotu ziren 2008ko lehen hiruhilekoan, aurreko epealdian jasotako %9,7 baino askoz gutxiago delarik. Zerga atalaren arabera, portaera oso ezberdinak hauteman dira. Hain zuzen ere, zuzeneko zergen multzoak gehikuntza tasa garrantzitsua lortu du, baina zeharkako zergek oso gutxi areagotu dituzte beren diru sarrerak, higiezinaren arloan gertatu diren arazoek kaltetuta.

Analisia zuzeneko zergekin hasita, adierazi behar da zerga horiek gorakada garrantzitsua lortu zutela, urte arteko aldakuntza tasa %8,8an kokatu zelarik. Hala ere, tasa hori ez da iritsi aurreko hiruhilabeteko %17,2ra. Zerga horien artean, PFEZ azpimarratu behar da, %8,1 gehiago bildu zuelako. Bereziki laneko atxikipenek, zergaren barruan pisu handiena duen atala baita, eta kapitaleko etekinek, bai higigarrienak bai higiezinak, eragin zuten zergaren gorakada hori.

Zuzeneko zergen artean garrantzia handiena duen besteak ere, hots, sozietateen gaineko zergak, bilakaera positiboa izan zuen lehen hiru hilabeteetan. Hala ere, datu horiek oraindik ez dute islatzen zergaren joera eta itxaron beharko da ekaina arte, enpresa handiek orduan kitatzen baitute zerga hori. Izan ere, martxoaren arteko datuekin, zerga hori aurreikusitakoaren %6,2 baino ez du bildu, diru sarrera nagusiak ekitaldiaren erdialdea igaro ondoren biltzen direlako.

Ekonomiaren moteltzea bereziki zeharkako zergetan hauteman zen, aurreko hiruhilekoan %3,3 hazi baziren ere, 2008ko lehen hiruhilekoan %1,9 bakarrik gehitu zirelako, hazkunde tasa murrizteko joerari jarraipena emanez. Zehazkiago adierazita, BEZ zergak bere hazkunde erritmoa aurreko hiruhilabeteko %5,7tik oraingo %5,0ra gutxitu zuen, diru bilketa bi zenbakiko hazkundetan igotzeko joera atzean geratu dela agerian utziz. Zerga hau kaltetuta atera da eraikuntzaren eta higiezinaren arloaren beherakadatik. Halaber, kontsumoaren hazkundeak izan duen motelaldiak ere eragina izan du zerga horren diru bilketan. Ondare eskualdaketen gaineko zergak ere erabilitako etxebizitzaren salmenta urriagoa nozitu zuen eta %40 baino gehiago murriztu zuen diru bilketa.

Azkenik, ekoizpenaren gaineko zerga bereziek, uste zitekeenaz bestela eta BEZ zergak ez bezala, gorakada nabarmena lortu zuten eta %6,4tik %8,8ra igo zuten diru bilketaren hazkundea. Tabako lanen eta hidrokarburoen zergen bilketak eragin du hazkunde hori eta badirudi erregaien garestitzeak ez diola oraingoz kalterik egin zerga horren diru bilketari.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2008ko urtariletik martxora)

24. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2007	2008	Aurrekon. %	08/07 aldak. %
PFEZ	1.122.814	1.213.696	27,6	8,1
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	986.789	1.043.131	24,4	5,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	67.126	99.043	43,5	47,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	8.305	11.030	25,9	32,8
- Ondare irabazien atxikipenak	9.366	9.544	24,7	1,9
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	44.991	45.755	23,6	1,7
- Kuota diferentzial garbia	6.237	5.193	---	-16,7
Sozietateen gaineko zerga	114.529	125.211	6,2	9,3
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	67.126	99.043	43,5	47,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	8.305	11.030	25,9	32,8
- Ondare irabazien atxikipenak	9.366	9.544	24,7	1,9
- Kuota diferentzial garbia	29.732	5.595	0,3	-81,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	36.533	44.885	37,5	22,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	14.244	19.000	23,5	33,4
Ondarearen gaineko zerga	1.370	679	0,4	-50,4
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	1.289.490	1.403.472	20,7	8,8
BEZaren bertoko kudeaketa	945.261	992.459	25,7	5,0
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	87.227	50.743	12,4	-41,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	37.337	30.117	21,6	-19,3
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	16.571	11.955	14,8	-27,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	310.680	337.898	21,9	8,8
Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	12.713	13.656	25,5	7,4
Aseguru sarien gaineko zerga	14.084	14.507	17,8	3,0
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	1.424.023	1.451.374	23,5	1,9
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	19.621	14.475	11,8	-26,2
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	2.733.134	2.869.322	21,9	5,0
BEZaren doikuntza	0	0	0,0	---
Zerga berezien doikuntza	0	0	0,0	---
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	2.733.134	2.869.322	20,1	5,0

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

Finantza krisia hasi zenetik hamar hilabete igaro direnean, moneta merkatuek ez dute lasaitasuna berreskuratu eta egoera kezagarri batean jarraitzen dute. AEBetako, Europako, Suitzako, Kanadako eta Erresuma Batuko banku zentralek, martxoan berriro elkartu baitziren bankuei dirua maileguan emateko, sisteman sartu zuten likidezia handia eta une jakin batzuetan Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak hartutako neurriak ez dira nahiko izan konfiantza berreskuratzeko eta eragiketak arazorik gabe egiteko. Moneta baldintzak gero eta gogorragoak izatea kredituen eskaria murrizten hasi da eta, beste aldetik, moneta agintariek aurre egin behar diote honako dilemari: prezioen bilakaera kontrolatu edo ekonomia jarduera bultzatu.

AEBetan, Erreserba Federalak lehentasuna eman dio ekonomiaren hazkundeari inflazioaren goranzko arriskuen gainetik. Irizpide horrekin, interes tasak %2,0ra jaitsi ditu. Azken beherakada hori onartu duen zazpigarren jaitsiera jarraitua da eta diruaren prezioa 2004ko abendutik inoiz izan duen mailarik apalenean kokatu du. Iazko irailaren erdialdetik, hau da, ekonomiaren abiadura galgatzten ari zelako lehen zantzuak nabaritu zirenetik, interes tasak 3,2 puntu jaitsi dira.

Erreserba Federalak interes tasak behin eta berriro murriztu dituen bitartean, Europako Banku Zentralak oso bestelako joera hartu du eta oraingoz ez du Euroguneko diruaren prezioa aldatu, beraren egiteko nagusia, inflazioa kontrolatzea (maiatzean %3,7 hazi zen), arriskuan jar dezakeelakoan. Izan ere, euroa 1999. urtean sortu zenetik, EBZk zazpi aldiz bakarrik jaitsi ditu interes tasak eta horietan guztietan inflazioa %3,0aren azpitik zegoen. Hori kontuan hartuta eta ikusirik kontsumoko prezioen indizeak azken hilabeteetan izan duen bilakaera, epe laburrean ez da jaitsierarik espero.


Ingalaterrako Bankuak, berriz, apirilean erabaki zuen interes tasak berriro jaitea bertako ekonomiaren motelaldiari aurre egiteko, eta %5,0an kokatu zituen. Lehenago ere 0,25 puntuko bi beherakada hartu bazituen ere, oraingo hirugarren hau ezarri ondoren erabaki dute herrialde hartako finantza erakunde nagusiek tipo aldakorreko hipoteketara berehala igarotzea jaitsiera hori. Hala eta guztiz ere, Erresuma Batuak oraindik G-7ko interes tasa altuenak ditu. Bereziki deigarria da maila hori EBZren %4arekin eta Fed-en %2arekin alderatzen bada.

Japoniako Bankuak interes tasak %0,50ean uztea erabaki zuen. Neurri hori hartu zenean, inflazioa igoko zelako beldurra eta herrialdeko ekonomia motelduko zelako ustea areagotzen ari ziren, esportazioak, inbertsioa eta kontsumoa apaltzen ari zirelako. Maiatzeko bileran,

hamabosgarren aldiz jarraian, Japoniako erakundeak bere horretan utzi zituen interes tasak, azken aldiz 2007ko otsailaren 21ean aldatuak izan zirenak. Txinan, antzeko joera gertatu zen. Prezioak etengabe igotzen ari diren arren, Txinako Banku Zentralak ez du inolako aldaketarik erabaki urte osoan eta erreferentziako tasak bere horretan mantendu ditu. Inflazioari aurre egiteko erreserbako koefizientea behin eta berriro igo du, baina neurri horiek oraingoz ez dute emaitza onik eragin.

Banku zentraletako erreferentzia tasak
Ehunekoak

13. irudia




Iturria: Espainiako Bankua.

Dibisa merkatuetan, finantza ezegonkortasunak, estatubatuar krisiaren bilakaeraz dagoen ziurgabetasunak eta Euroguneko eta AEBetako interes tasen arteko aldea zabalduko delako usteak euroari laguntza eman zioten balioa irabazteko bere ibilbidean. Zehazkiago adierazita, apirilaren 22an euroak 1,60 dolarreko muga gainditu zuen, Erreserba Federalak ustez onartuko zuen hurrengo jaitsieraren aurrean, Europako Banku Zentralak prezioen egonkortasunaren alde egin zuen defentsa sendoak lagunduta. Harez geroztik, joera lasaitu zen eta euroaren balioa 1,55 dolarren inguruan egonkortu da. Kotizazio horrek AEBetako esportazioak bultzatzen ditu eta prezioen bidezko lehiakortasuna areagotzea ahalbidetzen du. Libera esterlinak berriro galdu zuen balioa eta apirilean inoizko mailarik apalena jaso zuen euroaren aldean, euro bakoitzeko 80 penny trukutzen zirelako, euroa sortu zenetik baliorik txikiena baita.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

14. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.


Hiru urtez jarraian yenak balioa galdu du euroaren aldean, baina aurtengo lehen hiruhilekoan Japoniako dibisak galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuen, balio irabazi arin bati esker. Zalantzarik gabe, martxoan lortu zuen kotizazioa (156,59 yen euroko) azken urteko emaitzarik onena izan zen. Hala eta guztiz ere, arriskutik aldentzeko joerak inbertitzaileak bultzatu ditu yenetan erositako aktiboak saltzeko eta beste dibisa batzuetakoak erosteko, interes tasen arteko aldeaz baliatzeko. Horren ondorioz, apirilean kotizazioa euro bakoitzeko 162,31 yenetara itzuli zen. Azkenik, franko suitzarrak yenarena bezalako joera bat erakutsi zuen, zeren eta aurtengo lehen hiruhilekoan susperraldi arin bat lortu ondoren, apirileko eta maiatzeko datuek adierazten dute berriro galdu duela balioa euroaren aldean.

2008ko lehen hiruhilekoan burtsek gorabehera handiak nozitu zituzten. Urtarrileko beherakada bortitzaren, otsaileko egonkortasunaren eta martxoko jaitsiera berriaren ondoren, apirilean burtsek nolabaiteko oreka lortu zuten. Erreserba Federalaren eta Ingalaterrako Bankuaren interes tasen jaitsierek, merkatuetan likidezia gehiago sartu izanak eta AEBetako emaitzak on samarrak izateak burtsa nagusiek gora egitea eragin zuten, apirilean urtarrileko datuen aldean %10 irabazi baitzuten.


Interes tasen bilakaera
%

15. irudia

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Finantza erakunde nagusietako batzuek izan zituzten zailtasunek likideziazko arazoak areagotu zituzten. Gertakari horrek tentsioan jarri zituen berriro finantza merkatuak eta beste likidezia krisi bat eragin zuen. Gauzak horrela, eta urtebeterako euriborrak aurtengo lehen bi

hilabeteetan behera egin bazuen ere, martxotik aurrera goranzko norabidea hartu zuen berriro, maiatzeko azken egunetan %5 gainditu zuelarik, azken zortzi urteko mailarik gorena baita. Kontuan hartuta Europako Banku Zentralak interes tasak ez dituela jaisten eta banku erakundeak dirua mailegatzeko orduan zuhurrak direla, aukera gutxi dago euriborra oraingo mailetatik jaisteko.


Azkenik, ekonomia osoaren inguruan zabaldu den ziurgabetasuna kredituen eta gordailuen bilakaerara iritsi zen. Enpresek eta familiek eskatu zuten kredituak moteltzen jarraitu zuen eta azken bost urteko erritmo apalenean hazi zen. Izan ere, etxebizitza erosteko maileguak, beraien prezio altuek eta finantzazio baldintza gogorragoek eraginda, erritmoa galdu zuen berriro hiruhilabeteen zehar eta 2007ko bigarren seihilekoan, subprime hipoteken krisia piztu zenean, hasi zuen moteltzeko joera areagotu zuen. Kontsumorako maileguek ere joera bera erakutsi zuten eta gutxiago hazi ziren, kontsumitzaileen konfiantzaren jaitsierarekin bat eginez.

Kreditu eta gordailuen bilakaera


16. irudia

%

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Finantza egoera bere onenean ez egon arren, berankortasun tasak maila apaletan jarraitu zuen. Aurtengo lehen hiruhilekoan, tasa hori %0,88ra igo zen, oraindik oso txikia delarik. Beste aldetik, EAEko finantza erakundeek duten estaldura orokorreko ratioa %202,62an dago. Beraz, etorkizunean egon daitezkeen berankortasun gehikuntzei aurre egiteko badago hornidura tarte zabala.

Ekonomiaren moteltze garbiak gordailuen bilakaeran ere izan zuen eragina, baina oso bestelako modu batean. Bankuek ematen duten interes tasa altuagoa izateak eta beraiek likidezia gehiago lortzeko duten beharrak aurrezteko baldintza egokiagoak bultzatu zituzten. Horren ondorioz, gordailuen hazkundera 1986. urtetik inoiz lortutako maila altuenetan kokatu zen. Hain zuzen ere, aurtengo lehen hiruhilekoan gehikuntza tasa handienak lortu zituztenak inbertsiorako eta pentsio funtsekin lotura duten ekarpenak izan ziren.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Munduko ekonomiarentzat egin diren aurreikuspenek iragartzen dute hazkunde erritmoa 2008an eta 2009an zertxobait motelduko dela. Garapen bidean dauden ekonomien bizitasunak herrialde aurreratuenek, hala nola AEBek, Japoniak eta Europako zenbaitek, nozituko duten motelaldia konpentsatuko dute. Nazioarteko testuinguruak narriadura handia izan du azken hilabeteetan eta horrek garatutako ekonomiek datozen urteetarako egin dituzten hazkunde aurreikuspenak beheratzera behartu ditu.

Ekonomiaren ibilbidea mehatxatu duten eta datozen epealdietan ere jarraituko duten arriskuak etxebizitza merkatuaren desorekak, AEBetako ekonomiaren ahultasuna, truke tasaren gorabeherak, garapen bidean dauden ekonomia batzuen gehiegizko berotzea, gardentasun eta zaintza egokiaren faltak eragindako kreditu krisia, eta petrolioaren eta lehengaien garestitzea dira. Arrisku horiek guztiak dagoeneko ekonomiaren testuinguruan agertu dira, baina oso litekeena da orain arteko eraginak areagotzea eta horietaz aparte beste mehatxu ezberdin batzuk agertzea.

Estatubatuar ekonomia hazkunde apaleko fase batean sartuko da, 2009. urtera ere hedatuko dena, eta 2010. urtera arte itxaron beharko du susperraldia hautemateko. Beraz, AEBetako ekonomia moteltzeko joera hartuko du, baina ez dirudi atzeraldian sartuko denik. Datozen hiruhilabeteetarako estimatu den hazkundeak 'v' baten itxura dauka, hots, motelaldi bizkorra gertatuko da eta gero susperraldi bizia ere bai. Portaera hori komuna da etxebizitzaren arloarekiko mendekotasuna duten ekonomia guztien artean. Beraietan, doikuntza handiek azaltzen dute apaltzeko joeraren isuri markatua, baina higiezin desoreka handia zuzendutakoan oso bizkor suspertzen dira. Erakunde nagusiek aurreikuspenak beherantz eta era esanguratsu batean berrikusi dituzte. AEBetako barne produktu gordinaren hazkundeak izango duen jaitsiera familien kontsumoaren, inbertsio pribatuaren eta eraikinetan eginiko inbertsioaren, eta etxebizitzetarako horniduraren okertzearen ondorioa izango da.

Txinan, ekonomiaren hazkundera epe laburrean %9aren inguruan kokatuko da. Hala eta guztiz ere, bertako ekonomian arazo asko dago eta hazkundera galgatu dezakete. Beste batzuen artean, arazo nagusiak ingurumenekoak, gizartean dauden ezberdintasun izugarriak eta ekonomiaren eredia beste modu batean egituratzeko behar larria dira. Planifikatutako ekonomia batetik merkatuko ekonomia batera igarotzeko bidean konpondu gabeko alderdi asko geratzen zaie. Aipatu beharreko beste arazo handi bat langabeziarena da. Eremu

horretan, ezinbestekoa da lan eskua lehen arlotik ekoizkortasun handiagoko adarretara igarotzeko aukerak ematen jarraitzea. 2008ko urtean eta Pekinen ospatuko diren Olinpiar Jokoak direla eta, herrialde hori ahaleginduko da ospakizun horietaz baliatzen nazioartean duen irudia hobetzeko eta aldaketarako borondatea duela begi bistan uzteko.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK


25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Munduko Ekonomia	3,8	2,9	2,8	3,1	4,3	3,1
AEB	2,2	1,5	1,7	2,9	4,0	2,5
Kanada	2,7	1,2	2,1	2,2	2,0	2,0
Japonia	2,0	1,3	1,5	0,0	1,1	0,8
Eurogunea	2,6	1,7	1,4	2,1	3,3	2,3
Europar Batasuna	2,8	1,9	1,7	2,3	3,2	2,4
Alemania	2,5	2,2	1,3	2,3	2,8	2,0
Espainia	3,8	1,9	1,5	2,8	4,2	2,8
Frantzia	2,1	1,7	1,5	1,5	2,9	2,0
Herbehereak	3,5	2,3	1,7	1,6	2,6	2,6
Italia	1,4	0,4	0,9	1,8	3,2	2,5
Erresuma Batua	3,0	1,7	1,3	2,3	3,1	2,4
Asia eta Pazifikoa	5,9	4,8	4,8	2,5	4,2	3,0
Ekialdeko Europa	6,9	5,9	5,7	8,4	10,0	7,3
Amerika Latinoa	5,4	4,4	4,0	6,1	6,6	6,0

Iturria: Consensus Forecast (2008ko ekaina).

Asiako beste erraldoiak, Indiak, %8aren inguruko hazkunde tasak lortuko ditu, baina herrialde horretan ezinbestekoa da hainbat erreforma egitea, Txinako ekonomiak duen hazkunde erritmora hurbiltzeko. Asko dira aurrean dituen arazoak, besteak beste eta lehenbailehen konpondu beharrekoak honako hauek dira: txirotasuna, langabezia, azpienplegua, garatu gabeko lehen arlo bat egotea eta azpiegituren falta. Beste arrisku larri bat, Asiako herrialde guztietan agertzen dena, garatutako herrialdeekin, hots, AEBekin, Europar Batasunarekin eta Japoniarekin, duten mendekotasuna da. Gehikuntza tasak oso handiak diren arren, Asiako ekonomia horiek ez dira behar bezain sendoak munduko hazkundearen bultzagile nagusiaren paperean AEBak ordezkatzeko.




Iturria : NDF.

Japoniako ekonomiak nazioarteko eskariaren beherakada, bereziki AEBetako, nabarituko du 2008an eta 2009an. Estatubatuar herrialdearen moteltzeak kalte egingo die Japoniako esportazioei. Une egokia da bertako gobernuak barne eskaria sustatuko duten politika publikoak ezartzeko. Horretarako dagoen abantaila da AEBetan arrisku handiko hipotekek sortu zuten finantza kaosaren zeharkako eraginak ez direla neurri berean igaro garatutako herrialde guztietara, beraien artean Japonia dagoelarik.

Eurogunean ere motelaldia aurreikusten da 2008. urterako, baina ez da estatubatuar ekonomiarena bezain sakona izango. Analisisigileen ustez, susperraldia 2010. urtean gauzatuko da, baina urte horretako hazkunde tasa AEBetako baina apalagoa izango da. Europarako aurreikuspenak ere beherantz berrikusi dira eta, kasu honetan, ekonomiaren hazkundeak hiruhilabeteka izango duen itxura ‘u’ hizkiarena da, hots, erritmoaren beherakada arina eta susperraldi leuna 2009. urtean zehar. Bilakaera hori ohikoa da higiezinaren merkatuaren mendekotasun txikia duten ekonomietan. Eurogunean hazkunde ereduak oso ezberdinak dira eta higiezinaren arloak garapen izugarria izan zuen Grezian, Irlandan, Espainian eta Finlandian. Herrialde horietan guztietan ekonomiaren hazkundera kaltetuta geratuko da etxegintzaren atalean. Arreta berezia jarri beharko zaio Alemaniaren eta Frantziaren bilakaerari. Bi ekonomia horien bizitasuna erabakigarria izango da Euroguneko susperraldiaz hitz egin ahal izateko datozen urteetan.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

18. irudia



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Aurreikuspenak egiten dituzten ekonomia erakunde guztiak bat datoz Europako ekonomiak 2008. urtean moteltzeko joera hartuko duela adieraztean. Era berean, tentsioak iragartzen dituzte inflazioan, petrolio gordinaren eta elikagaien salneurriek azken hilabeteetan izan duten gorakadaren ondorioz. Aurrekoa kontuan hartuta, epe laburrean, Europako Banku Zentralak diruaren prezioa aldaketarik gabe %4an mantenduko duela edo oso gutxi –beharbada 0,25 puntu- igoko duela espero da, prezioen bilakaera zaintzeko egiten duen lanaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, urte amaieran Europako Banku Zentralak bere moneta politika aldatu dezake eta litekeena da interes tasak zertxobait jaistea. 2008. urtean zehar inflazioak izango duen

bilakaera eta ekonomiak nozituko duen narriadura oso garrantzitsuak izango dira norabide bateko edo besteko erabakiak hartzeko.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko maiatza-ekaina)

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoen eta bestean	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	2,0	1,7	2,0	1,8	5,3	5,5	0,1	-1,8	-1,5	-3,0	3,5	0,8
BBVA	1,9	1,4	1,7	1,2	5,4	5,2	0,1	-2,2	-2,2	-3,8	2,5	-1,9
Caixa Catalunya	2,3	1,7	2,0	1,6	5,0	4,9	1,6	-0,1	-2,2	-4,2	6,2	3,8
Caja Madrid	2,1	1,6	1,9	1,3	4,7	4,8	0,3	-1,8	-2,0	-3,5	2,6	-1,2
CEPREDE-UAM	2,4	1,9	2,3	1,9	4,3	3,9	2,1	-0,6	-0,8	-4,0	7,6	4,6
Merkataritza ganbarak	2,0	1,5	1,7	1,1	5,1	4,6	2,5	1,7	0,9	0,3	4,9	3,7
FUNCAS	2,0	0,9	2,0	1,5	5,0	4,1	0,2	-2,8	-2,0	-3,8	3,2	-2,9
ICAE-UCM	2,7	2,0	2,5	2,0	5,0	4,2	2,4	1,0	0,8	-0,2	6,1	2,8
ICO	2,3	2,2	2,1	2,1	5,2	4,9	1,5	0,7	-0,2	-0,6	4,6	2,7
IEE	2,3	--	2,0	--	5,0	--	2,0	--	0,0	--	5,9	--
IFL-UC3M	2,2	1,7	1,8	1,8	4,5	4,5	1,9	0,4	-0,2	-1,1	6,0	3,9
Intermoney	2,0	1,5	1,7	1,5	4,9	4,1	0,3	-1,1	-2,7	-3,5	4,6	1,5
La Caixa	2,5	2,0	2,2	1,9	4,4	5,6	2,4	-1,0	0,9	-3,4	5,1	2,3
SCH	2,1	1,5	1,8	1,6	5,0	4,7	0,9	-1,6	-0,7	-2,8	4,3	0,5
Batez bestea	2,2	1,7	2,0	1,6	4,9	4,7	1,3	-0,7	-0,8	-2,6	4,8	1,6
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-04)	2,3	2,3	2,2	2,2	4,8	3,8	1,5	1,5	--	--	--	--
Espainiako Bankua	2,4	2,1	2,3	1,9	4,8	4,4	1,5	0,4	-0,2	-1,2	4,4	2,6
E. Batzord. (2008-04)	2,2	1,8	2,2	1,9	5,0	4,3	1,4	-1,5	-0,7	-4,8	4,3	1,5
NDF (2008-04)	1,8	1,7	2,0	2,2	5,7	4,9	-1,1	-1,8	--	--	--	--
ELGE (2008-06)	1,6	1,1	1,2	1,1	5,1	5,2	0,0	-2,8	--	--	--	--

Iturria: Funcas.

Funcas-ek biltzen dituen erakundeen azken aurreikuspenen arabera, Espainia %2,2 haziko da 2008. urtean eta %1,7 2009an, duela bi hilabete eginiko aurreikuspenetan %2,5 2008rako eta %2,1 2009rako estimatzen zuten bitartean. Berrikuste horren ondoren, Espainiako ekonomiaren hazkundera oraindik Eurogunerako estimatu den tasaren gainetik kokatzen da,

baina bi ekonomien hazkundeen arteko bat egitea gero eta hurbilago dago. Espainiar ekonomiaren motelaldia desorekak zuzentzeko beharrezko urrats bat baino ez da. Higiezinaren garapena eta familien gehiegizko zorpetzea dira horietako bi.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko maiatza-ekaina)
27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,9	1,3	3,7	3,2	3,1	1,9	4,0	2,6	0,9	0,0	10,0	12,0
BBVA	1,9	1,0	2,4	2,0	2,2	0,8	3,7	2,7	0,6	-0,3	9,5	11,0
Caixa Catalunya	2,7	1,9	3,9	3,4	4,3	3,5	4,1	2,9	--	--	--	--
Caja Madrid	2,0	1,1	3,5	2,9	3,0	1,5	4,0	2,7	0,8	0,0	9,8	11,5
CEPREDE-UAM	2,9	2,0	3,5	3,8	4,5	2,8	3,6	2,5	1,3	0,4	9,3	10,9
Merkataritza ganbarak	2,5	1,9	4,0	3,9	4,8	4,2	3,9	2,9	0,7	0,5	10,0	10,2
FUNCAS	2,0	0,8	4,1	3,2	3,7	2,3	4,1	3,0	0,9	-0,3	9,9	11,6
ICAE-UCM	3,1	2,1	4,6	3,4	4,9	3,5	3,6	2,6	1,8	0,8	8,5	10,0
ICO	2,5	2,2	4,2	4,0	4,4	3,6	3,9	2,8	1,3	1,0	9,8	10,3
IEE	2,7	--	4,5	--	4,7	--	3,7	--	1,3	--	9,5	--
IFL-UC3M	2,5	1,9	4,1	3,6	4,4	3,7	4,2	2,7	--	--	8,8	9,1
Intermoney	1,8	1,2	4,0	2,9	2,9	1,7	4,0	2,4	0,9	0,0	10,1	13,2
La Caixa	2,6	1,7	4,8	5,1	4,8	3,4	4,0	2,8	1,5	0,8	9,6	10,7
SCH	2,2	1,3	3,2	2,4	3,2	1,7	3,8	2,8	1,0	0,4	10,0	11,0
BATEZ BESTEA	2,4	1,6	3,9	3,4	3,9	2,7	3,9	2,7	1,1	0,3	9,6	11,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-04)	2,4	2,2	4,0	3,9	4,1	3,7	--	--	1,2	1,1	9,8	10,0
Espainiako Bankua	2,5	1,9	4,0	4,5	4,1	3,4	3,6	2,3	1,5	1,1	9,0	9,8
E. Batzord. (2008-04)	2,7	2,1	4,0	4,9	4,5	3,0	3,8	2,6	1,3	0,7	9,3	10,6
NDF (2008-04)	1,7	1,6	--	--	--	--	4,0	3,0	--	--	9,5	10,4
ELGE (2008-06)	1,5	0,7	4,3	4,6	3,6	2,9	4,6	3,0	0,7	0,3	9,7	10,7

Iturria: Funcas.

Funcas-eko adituek beherantz egin duten berrikustea gastu pribatuaren apalaldiak eta higiezinaren arloak bizi duen doikuntza bortitzak eragin dute, azken hau hasieran espero zena baino azkarragoa eta gogorragoa izan baita. Etxebizitzaren arloan, gehiegizko eskaintza dago eta horrek prezioak gutxiago haztea eta, aldi berean, eraikuntza arloaren jardura geldiaraztea

ekarri du. Lehenengo ondorioa eraikuntza arloko enplegua nabarmen murriztu izana da. Horrek familien errenta erabilgarria murriztu du eta familien kontsumoa moteldu. Familiek egingo dituzten gastuak gutxiago haziko direnez, aurrezteko joera suspertuko da, azken epealdietan maila apaletan baitzegoen.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2008ko maiatza)

28. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	08.II	08.III	08.IV	2008	2009	2010	2011
BPG	2,4	2,0	1,9	2,3	1,7	0,8	1,1
Kontsumo pribatua	2,3	2,2	2,2	2,3	2,0	0,6	0,9
Kontsumo publikoa	4,3	4,3	4,3	4,3	4,0	2,8	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	1,6	0,8	2,1	0,0	-2,2	-0,8
- Inbertsioa ekipamenduan	7,7	7,6	7,2	7,7	5,7	-1,6	-0,7
- Inbertsioa bestelakoetan	3,5	3,1	3,0	3,5	2,9	-0,4	-0,3
- Inbertsioa eraikuntzan	-0,2	-1,5	-2,7	-0,8	-3,8	-3,1	-1,0
Barne eskaria	2,7	2,4	2,3	2,6	1,8	0,2	0,7
Esportazioak	3,9	3,2	3,0	3,6	3,8	3,8	4,3
Inportazioak	5,1	4,8	4,2	4,8	3,4	1,4	2,5



Iturria: CEPREDE.

Finantza krisiak kredituaren eskaintza nabarmen murriztu du eta enpresarien zenbait egitasmo bertan behera geratu dira. Inflazioak ere mozkinak murriztu ditu. Horrek eta beste faktore batzuek enpresarien igurikimenak okertu izana eragin dute. Aurreko guztiak pentsarazten du datozen urteetan inbertsioak ez duela bilakaera ona izango.

Lan merkatuak ere motelaldiaren ondorioak hautemango ditu. Adituak bat datoz 2008an eta 2009an Espainiako ekonomian enpleguaren hazkundea txikiagoa izango dela adierazteko orduan. Beraien batez besteko aurreikuspenak aurreratzen du enplegua %1,1 haziko dela 2008. urtean eta %0,3, berriz, 2009an. Aurreikuspen horiek aurreko panelean eginikoak baino bost eta zazpi hamarren txikiagoak dira, hurrenez hurren.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak urte honetarako eta hurrengorako prestatu duen aurreikuspenak moteltzeko joera garbia islatzen du, erreferentziako epealdi osora hedatzen dena. Hain zuzen ere, 2007. urtean lortutako %3,9ko hazkundearen ondoren, 2008. urtean %2,7ko gehikuntza tasa espero da, 2009. urtean BPGren igoera %2,3ra mugatuko delarik. Hiruhilabetekako ikuspegi batean, aurreikuspenak iragartzen du motelaldia bereziki azkarra izango dela 2008ko lehen erdian, baina hurrengo hiruhilekoetan hazkunde tasak hamarren gutxi batzuk bakarrik jaitsiko direla.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2008ko maiatza)

29. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	2009
BPG	3,9	3,1	2,7	2,5	2,4	2,7	2,3
Azken kontsumoa	3,5	2,9	2,7	2,4	2,4	2,6	2,3
Kontsumo pribatua	3,5	2,4	2,2	2,0	1,9	2,1	1,9
Kontsumo publikoa	3,7	4,9	4,7	4,4	4,5	4,6	4,0
Kapital eraketa gordina	5,9	3,6	3,0	3,1	3,3	3,3	2,7
Barne eskariaren ekarpena	4,4	3,3	3,0	2,7	2,7	2,9	2,5
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	-0,2	-0,2	-0,2	-0,3	-0,2	-0,2
Lehen arloa	8,0	4,6	-7,8	-6,9	-3,1	-3,3	-5,6
Industria	3,8	1,9	2,1	2,2	2,3	2,1	2,1
Eraikuntza	4,0	2,4	1,8	1,3	1,0	1,6	0,4
Zerbitzuak	3,8	3,6	3,2	2,8	2,6	3,1	2,6
Balio erantsi gordina	3,9	3,0	2,6	2,4	2,3	2,6	2,2
Ekoizkineen g. zerga garbiak	4,3	3,6	3,4	3,2	3,2	3,4	3,2
BPGren deflatoarea	3,3	3,5	3,5	3,4	3,3	3,4	3,2
Enplegua	2,4	1,7	1,4	1,4	1,2	1,4	1,1
Langabezia tasa	3,3	3,3	3,6	3,8	3,8	3,6	3,9

Iturria: Eustat (2007 eta 2008ko lehen hiruhilekoa) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Eskariaren ikuspegitik, aipatutako ezaugarriek gehien kaltetu zituzten atalak barne eskaria osatzen dutenak dira, zeren eta kanpo saldoak ia ez zuen aldaketarik jaso aurreko ekarpen negatiboaren aldean. Pentsatzekoa da EAEko enpresen merkataritza bazkideentzat aurreratzen den barne eskarien hazkunde erritmo apalagoak merkatu horietara bidalitako esportazioen bultzada gutxituko duela. Hala eta guztiz ere, EAEtik egingo diren inportazioak ere azken

epealdietan baino gutxiago haziko dira, EAEko barne eskaria bera tasa txikiagoan haziko delako.

Alde batetik, kontsumo pribatuak %2aren inguruko tasa batera mugatuko du bere gehikuntza tasa erreferentziako bi urteetan. Arrazoiak enplegu sorrera txikiagoa, altu samarra den inflazioa, berehala murriztuko ez diren interes tasak eta azken hilabeteetan okerrera egin duen konfiantza maila dira. Aurreko guztiaren ondorioz, familien gastua errenta erabilgarriaren hazkunde tasara hurbilduko da, batez ere enpleguaren eta soldata errealeen bilakaerak zehazten baitute. Pentsatzekoa da familiak ziurgabetasuneko eta hazkunde txikiagoko epe honetaz baliatuko direla aurrezkia areagotzeko eta zorpetze maila gutxitzeko. Beste aldetik, administrazio publikoak neurri batean konpentsatuko du gastu pribatuaren erritmo galera eta hazkunde garrantzitsuak egingo ditu bere kontsumoan.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kapitaleko eraketa gordina erabakigarria izan da azken urteetan EAEko ekonomiaren garapenean eta aurreikuspen honetan kontuan hartzen den epealdian ere paper garrantzitsua jokatuko du, berritri EAEko ekonomiaren batez bestea baino gehiago haziko delako. Hala eta guztiz ere, aldagai honek ere bertoko zein kanpoko motelaldiaren ondorioak hautemango ditu. Etxebizitzan eraikuntzan egiten den inbertsioak beherakada jasoko du, arlo horretan igurikimenak ezkorrek direlako, saldu gabeko etxe mordo bat dagoelako. Dena dela, etxebizitzan eraikuntzak biziko duen ahultasuna azpiegituretan egingo diren obra publiko

berrien hasierarekin konpentsatuko dira neurri batean. Ekipamenduan eginiko inbertsioan ere ez da bilakaera onik aurreikusten, barne produktu gordina motelduko denez, ekoizteko ahalmena handitzeko inbertsioak horren beharrezkoak izango ez direlako. Halaber, zahartuta geratu diren ekipamenduak berritzeko behar ziren inbertsio handiak neurri batean eginda daude dagoeneko.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsiak oro har nabarmen murriztuko du bere hazkunde tasa, batez ere 2008. urtean. Eraikuntzak nabaritu du neurri handienez aipatu den moteltzeko joera, etxebizitzaren eraikuntzan dauden arazoei kalte egingo. Eraikuntzak gero eta hazkunde tasa txikiagoak jasoko ditu eta aurreikuspen honen amaieran tasak hutsalak izango dira. EAEko ekonomian pisu handiena duten bi sektoreentzat, ordea, bilakaera positiboagoa aurreikusten da. Industriak nolabaiteko ahultasuna erakutsi du 2008ko hasieran, baina eskari zorrozaren datuek eta arlo horretako enpresariaren iritzien pentsarazten dute, balio erantsia oso bizkor suspertuko ez bada ere, %2aren inguruko aldakuntza tasak jasoko dituela modu iraunkor batean. Zerbitzuen sektoreari dagokionez, kontsumoarekin lotura duten bilakaera motelagoa izango dute, baina hala industriari lotuagoak direnak nola administrazio publikoak ematen dituen aldakuntza tasa garrantzitsuak lortuko dituzte. Bilakaera horien guztien ondorioz, zerbitzuen guztizkoa %3tik zertxobait gorago haziko da 2008. urtean eta %2,5aren inguruan 2009. urtean.

EAEko ekonomiarentzako oraingo aurreikuspena ezkorragoa denez, lan merkatuarena ere okerragoa izango da. Hain zuzen ere, enplegua sortzeko aurreikuspena %1,4ra murriztu da urte honetarako eta %1,1era 2009. urterako. Lanpostu berriak sortzeko ahalmena txikiagoa izango da bereziki eraikuntzaren motelaldiaren ondorioz, bere jarduerak aurrera eramateko lan esku handia behar duelako. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren egoerak enpleguan eragina izango duen arren, langabezia tasan ez da kezkatzeko moduko igoerarik gertatuko. Izan ere, gaur egun ez dago lan merkatuan parte hartu nahi duen biztanleria aktiboaren presio handirik, biztanleriaren piramidea negatiboa delako eta atzerritar langileak kopuru txikiagoetan etorriko direlako. Azkenik, epealdi horretarako aurreikusten diren ekoizkotasun irabaziak %1aren zertxobait gaineratik kokatzen dira.

Honako taula makroekonomikoa osatzeko hainbat suposamendu egin dira prezioen, interes tasen, truke tasaren eta ekonomia eremu nagusien egoeraren etorkizuneko bilakaeraz, aldagai horiek guztiek EAEko ekonomian zuzenean edo zeharka, ingurune herrialdeekin egiten diren merkataritzako salerosketen bidez, eragina dutelako.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2008ko apirila)

30. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	2009
AEB	2,9	4,1	3,8	4,1	3,5	3,9	2,5
Eurogunea	2,1	3,4	3,4	3,3	2,8	3,2	2,1
Espainia	2,8	4,4	4,4	4,5	3,5	4,2	2,7
EAE	2,8	4,3	4,3	4,5	3,5	4,2	2,9


Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Munduko ekonomiaren arazo nagusietako bat inflazioa da. Lehengaien garestitzea ez dirudi abagunekoa izango denik eta baliabide horiek ekoizten dituzten eremuen eta kontsumitzaileen arteko erantzun koordinatuak beharko dira. Oraingo estimazio honetarako suposatu da kontsumoko prezioen hazkunde tasek goia jo dutela eta urratsez urrats moteltzen hasiko direla, bereziki 2009. urtean zehar. Hala eta guztiz ere, barne produktu gordinaren deflatoreak ez du jaitsiera hori osorik bereganatuko eta ia ez du aldaketarik izango urte batetik bestera.

KPIren bilakaera

21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria Eurostat, INE, Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Interes tasek ezin izango dute lagundu Europako ekonomiak suspertzen inflazioa apaltzen ez den bitartean. Horregatik, aurreikuspen honetan interes tasak altuak izango direla baina kontsumoko prezioak apalduko diren heinean jaitsi egingo direla estimatu da. Hain zuzen ere, epe laburrerako interes tasak aurreikuspenaren hasieran %4,8 izatetik 2009ko amaieran %3,5 izatera igaroko dira.

Aurreikuspenean kontuan hartu den truke tasak euro indartsu bat du oinarrian, urte hasieran euro bakoitzeko 1,59 dolar ematen dituen, baina 2008ko amaieran eta 2009ko hasieran 1,70 dolarretara iritsiko dena. Harez geroztik, truke tasa leunduko da eta erreferentziako epealdia amaitzen denerako 1,57 dolarretan kokatuko da. Estatubatuar ekonomiarentzat egiten den aurreikuspenak islatzen du aurten motelaldia bizia nozituko duela, baina 2009ko bigarren seihilekoan susperraldi azkarra izango duela. Horretan oinarrituta, aurreikuspenaren hasieran dolarrak balioa galduko du, baina susperraldia sendotzen den heinean balioa berreskuratuko du.